

Bergaran
Euskara Biziberritzeko
Plana

Diagnosia

**Bergarako Udala
2003ko martxoa**

Aurkibidea

1. Sarrera

2. Diagnosia

2.1. Oinarrizko datuak

2.1.1. Biztanleria

2.1.2. Hizkuntza gaitasuna

2.1.2.1. Hizkuntza-gaitasuna 1996 eta bilakaera.

2.1.2.2. Hizkuntza-gaitasuna 1996, auzoaren arabera

2.1.2.3. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera

2.1.2.4. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, adinaren arabera

2.1.2.5. Hizkuntza gaitasuna, ikasketa mailaren arabera

2.1.2.6. Hizkuntza gaitasuna, jarduera ekonomikoaren eta profesioaren arabera.

2.1.2.7. Inguruarekiko konparaketa

2.1.3. Kaleko erabileraren neurketa

2.2. Euskara ondorengoetaratzea

2.2.1. Irakaskuntza

2.2.1.1. Ikastereduen azterketa

2.2.1.1.1. Irakaskuntza ez unibertsitarioa. Ereduen bilakaera 1983-84/2000-01

2.2.1.1.2. Irakaskuntza ez unibertsitarioa. Ereduen banaketa 2000-01, irakasmailaren arabera

2.2.1.2. Ikastetxeen egoeraren azterketa.

2.2.2. Euskalduntze-alfabetatzea

2.2.2.1. Euskalduntze-alfabetatzen jardun duten bergararren bilakaera

2.2.2.2. Azken urteetako emaitzak

2.2.3. Familia bidezko jarraipena

2.2.3.1. Hizkuntza-bilakaeraren tipologia

2.2.3.2. Hizkuntza-bilakaeraren tipologia, adinaren arabera

2.2.3.3. Etxeko hizkuntza-erabileraren tipologia, hiztun tipologiaren arabera, 1996

2.2.3.4. Etxeko hizkuntza, euskaldunen dentsitatearen arabera

2.2.3.5. Etxeko hizkuntza erabilera, adin-taldeka

2.2.3.6. Etxeko hizkuntzaren bilakaerari buruzko zenbait kontsiderazio.

2.2.3.7. Familia, etorkizunera begira.

2.2.4. Ondorengoetaratzearen emaitza orokorrak.

2.3. Euskararen erabilera

- 2.3.1. Administrazioa
 - 2.3.1.1. Udala
 - 2.3.1.2. Justizia
 - 2.3.1.3. Anbulatorioa
- 2.3.2. Informazio eta komunikazioaren teknologia berriak
- 2.3.3. Enpresa mundua
 - 2.3.3.1. Zerbitzuak
 - 2.3.3.2. Industria
- 2.3.4. Aisia, kultura eta kirola, batera.
- 2.3.5. Aisialdiko eta kulturako elkarteak eta kirolekoak, banatuta.
 - 2.3.5.1. Aisialdiko eta kulturako elkarteak.
 - 2.3.5.2. Kirol elkarteak.
- 2.3.6. Erlijioa
- 2.3.7. Sindikatu, alderdi politiko eta gizarte mugimenduak
- 2.3.8. Haur eta gaztetxoei bideratutako eskolaz kanpoko ekintzen hizkuntza egoera (1999-2000).

2.4. Euskararen erabilera

- 2.4.1. Corpusa
- 2.4.2. Komunikabideak
 - 2.4.2.1. Komunikabideen audientziak, merkatu-kuotak, salmentak...
 - 2.4.2.2. Herriko eta eskualdeko komunikabideak.
- 2.4.3. Liburugintza
- 2.4.4. Publizitatea
- 2.4.5. Kulturgintza

2.5. Baliakizunak

- 2.5.1. Baliakizun pertsonalak
- 2.5.2. Euskara-aurrekontuak

2.6. Ondorio nagusiak

- 2.6.1. Egoera soziolinguistikoa. Datu orokorrak
- 2.6.2. Euskararen ondorengoetaratzea
- 2.6.3. Euskararen erabilera
- 2.6.4. Euskararen elikadura



SARRERA

Bergarako Udalaren enkarguz, 1999. urteko urrian hasi zen EHUKo lantalde bat¹, udaleko Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, Bergarako Azterketa Soziolinguistikoa egiten. Lan haren emaitza gisa, bi txosten nagusi aurkeztu nahi ziren:

- Lehenengo txostenean, Bergarako egoera soziolinguistikoaren azterketa zabal eta zehatza osatu nahi zen.
- Bigarren txostenean, berriz, hurrengo lau urteetarako Euskara Biziberritzeko Planaren ildo nagusiak finkatu nahi ziren, gizarteko arlo bakoitzeko normalizazio egitasmoak finkatzerakoan lagungarri izan zitezen.

Lehenengo txostena bukatua eta bigarrena bideratua zela, plazaratu zituen Eusko Jaurlaritzak Euskara Biziberritzeko Plana herrietara hedatzeko proposamena eta proposamen horrekin lotutako materialak, tartean herriko euskararen egoerari buruzko diagnosi laburra.

Bergarako Udalak egoki ikusi zuen Jaurlaritzaren asmo hura eta EBPN herrian garatzeko bideak urratzea erabaki zuen eta baita horretarako behar ziren erabakiak hartu ere.

EBPNren diseinuaren barruan lehenengo atala diagnosiarena da eta, hain zuzen ere, horixe aurkezten dizuegu txosten honetan.

Bertan, nagusiki, EHUKo lantaldeak, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan egindako diagnosi-txosten nagusiaren laburpen bat dator baina, bertan ikus litekeenez, erabili izan dugu HPSk gertatutako diagnosia ere.

¹ EHUKo Soziologia 2 saileko kideak: Iñaki Martinez de Luna, Olatz Olaso eta Kontxesi Berrio-Otxoa.

DIAGNOSIA



2.1.- OINARRIZKO DATUAK

2.1.1. BIZTANLERIA

2000ko datuen arabera, Bergaran 15.041 lagun bizi dira, hau da, Gipuzkoako biztanleen %2,2 eta Deba Goieneko %24,1. Biztanleen bilakaerari dagokionez, 1981 eta 2000 bitartean Bergarak 1.008 lagun galdu ditu, hau da, -%6,2. Galera hori, gainera, etengabea izan da.

Biztanle-kopurua: 15.041

Eskualdea: Deba Goiena

Lurraldea: Gipuzkoa

1. taula: Biztanleriaren egitura 2000, adinaren arabera


	Guztira	0-19 urte	20-64 urte	<65 urte
Gipuzkoa	681.578	17,66	64,86	17,48
Debagoiena	62.450	17,59	64,89	17,53
Bergara	15.041	17,56	63,35	19,09

Biztanleen galerak biztanleriaren zahartzea dakar. Bergaran, zaharkitze hori ez da oraindik nabaritzen, nahiz eta lehenengo sintomak agertzen hasi diren. Izan ere, gazteen portzentajea Gipuzkoakoa eta eskualdekoa baino zertxobait txikiagoa da eta zaharrena, aldiz, handiagoa.

2.1.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

2.1.2.1. Hizkuntza-gaitasuna 1996 eta bilakaera.

Bergarako biztanleen bi heren baino gehiago (%68,7) euskaldunak dira, hamar lagunetik bat (%10,1) elebidun hartzailea da eta, azkenik, bostetik bat (%21,2) erdaldun elebakarra. Azken hamabost urteotako bilakaera aztertuz gero, erdaldun elebakarren jaitsiera aipagarria da, izan ere, erdaraz baino ez dakitenen portzentajea 7 puntutik gora jaitsi da. Elebidun hartzaileek ia ez dute gorabeherarik izan. Euskaldunen gorakada ere garrantzitsua izan da, denbora-tarte horretan, 6 puntu baino gehiago hazi baitira.

1. irudia. Biztanleriaren hizkuntza gaitasunaren bilakaera 1981-1996 (%)

Iturria: HPS

2.1.2.2. Hizkuntza-gaitasuna 1996, auzoaren arabera

Auzoen egoerari dagokionez, euskaldunen portzentajerik handiena landa-eremuan bizi direnek dute (%83,5). Erdialdeko euskaldunen portzentajea ere handia da (%74,7) eta garrantzi berezia du, berori delako gunerik jendetsuena. Beste muturrean, Zubiaurre dago: biztanle gutxien duen auzoa izateaz gain, bertan dago euskaldunen portzentajerik txikiena (%54,7). Gainerako auzoetako euskaldunak bi heren inguru dira.

2 taula. Hizkuntza gaitasuna 1996, auzoaren arabera


	Guztira	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
Bergara	14700	68,69	10,1	21,2
Bergara-Alde Zaharra	1958	67,57	10,88	21,55
Bergara-Bolu	1746	67,12	12,31	20,56
Bergara-Erdialdea	2947	74,72	9,84	15,44
Bergara-Landa eremua	1757	83,55	5,07	11,38
Bergara-Matxiategi-Sta. Marina	2203	62,6	11,12	26,28
Bergara-S. Antonio-Toki Eder	1405	63,77	12,88	23,35
Bergara-S. Lorenzo	1530	67,12	8,24	24,64
Bergara-Zubiaurre	1154	54,68	10,92	34,4

Bestalde, bilakaerari dagokionez, euskaldunen pisu orokorra auzo guztietan igo da 1986tik 1996ra, San Lorentzon izan ezik; bertan puntu bat jaitsi baita.

2.1.2.3. Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera


Bergarako euskaldunak nagusi dira adin-talde guztietan. Portzentajerik handienak zaharrek eta, batez ere, gazteenek dituzte. Zaharren artean euskaldunak hiru laurdenetik gora dira eta adinak behera egin ahala, portzentajeak ere behera egiten du. Baina 25 urtetik beherako gazteen artean, joera aldatu egiten da eta euskaldunen portzentajearen hazkundea nabarmena da, zaharrena gaingitu arte. Izan ere, 20 urtetik beherako gazteen artean euskaldunak %90 baino gehiago dira.

2 irudia. 1996ko hizkuntza gaitasuna adin taldeka



2.1.2.4. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, adinaren arabera

3. irudia. Euskaldunen bilakaera 1981-1996, adin-taldeka



Bilakaerari dagokionez lau adin-tarte bereiztuko genituzke, azkeneko 15 urteetan izandako bilakaera kontuan hartuta:

0-29 urte artekoa: euskaldunen kopuruak nabarmen egin du gora. Azkeneko 15 urteetan, adibidez, 35 puntuko igoera izan du 5-9 urte bitarteko euskaldunen kopuruak, %61.6tik %96.3ra.

30-50 urte artekoa. Adin-tarte honetan ez da 1981etik 1996ra aldaketa nabarmenik izan: orain dela 15 urte adin-tarte horretan zeudenak eta gaur egun daudenak hizkuntza gaitasun antzekoa dute. %55-60 ingurua da euskalduna.

50-75 urte artekoa. Euskaldunen ehunekoaren jaitsiera nabarmena dago. Adibidez, 55-59 adin-tartean 81ean %77,2 zen euskalduna eta 1996an %53,6.

75 urtez gorakoak. Jaitsiera txiki bat izan bada ere, ez da aldaketa nabarmenik izan. Euskaldunen kopurua %75-80 inguruan dago.

Erdaldun elebakarrei dagokienez, bi joera nagusi bereizi ditzakegu: 50 urtez azpikoena eta 50 urtez gorakoena. Lehenengo multzoan erdaldunen proportzioa txikitu egin da (25 urtez azpikoetan 20 puntuko jaitsiera edo handiagoa eta 25-50 urtekoetan 10 puntuko jaitsiera edo apalagoa) eta bigarrenean gehitu, batez ere, 55-70 adin tartean (%10eko edo handiagoko igoerak).

2.1.2.5. Hizkuntza gaitasuna, ikasketa mailaren arabera

Alde nabarmenak daude hizkuntza gaitasun batekoen eta bestekoen artean, ikasketa mailari dagokionez: euskaldunetan dezentez handiagoak (kasu batzuetan nabarmen handiagoak) dira, oinarritzko ikasketak baino altuagoak dituztenen ehunekoak erdaldunetan baino. Aldiz, normala den moduan, aurrekoaren kontrako gertatzen da ikasketa gabekoak edo behe-mailako ikasketadunen kasuan: oro har, euskaldunetan askoz gutxiago direla, proportzioan, erdaldun eta ia euskaldunetan baino.

Alderik nabarmenena unibertsitate-ikasketetan dago: euskaldunetan ikasketa horiek egin dituztenen ehunekoa lau aldiz handiagoa da erdaldunetan baino eta ia bi aldiz handiagoa ia euskaldunetan baino. Alde hori, gainera, nabarmenagoa da gazteetan. Hona hemen, adibidez, kopuru absolututan, ikasketa ertain edo ertain-gorenak dituzten 40 urtez azpiko bergarretatik zenbat diren euskaldunak, zenbat ia euskaldunak eta zenbat erdaldunak:


3. taula. Ikasketa ertain/ertain gorenak dituzten 40 urtez azpiko bergararrak (1996)

	Kopuru absolutuak	Guztizkoarekiko %
Euskaldunak:	1221	82,4
Ia euskaldunak:	196	13,2
Erdaldunak:	65	4,4
GUZTIRA	1482	100

Iturria: EUSTAT

2.1.2.6. Hizkuntza gaitasuna, jarduera ekonomikoaren eta profesioaren arabera.

Jarduera ekonomikoari erreparatzen badiogu, berriz, lehenengo eta behin, esan behar da ia adin tarte guztietan aktibo okupatuak gehiago direla euskaldunen artean erdaldunen artean baino.

4. irudia. Aktibo okupatuaren % hizkuntza gaitasunaren arabera, adin-taldeka (1996)

Iturria: EUSTAT

Era berean, euskaldunen artean erdaldunen artean baino proportzio handiagoa hartzen dute profesional teknikoek, zuzendaritzako pertsonalak eta administrazio langileak. Erdaldunen artean, berriz, nabarmen gehiago dira industriako langileen proportzioak euskaldunen eta elebidun hartzaileen artean baino.


Saltzaile komertzianten lanbidea ere esan genezake elebidun hartzaileena eta euskaldunena gehiago dela erdaldunena baino eta zerbitzu eta pertsonalari dagokionez, berriz, hizkuntza gaitasunaren arabera ezberdintasun nabarmenik ez dagoela.

Hortaz, esan genezake euskaraz jakitea profesio kualifikatuenei zertxobait lotuago dagoela bestelako lanbideei baino.

2.1.2.7. Inguruarekiko konparaketa

Bergara, biztanle euskaldunen proportzioa kontuan hartuta, Debagoieneko udalerrien artean erdian kokatzen da. Elgeta, Oñati, Leintz Gatzaga eta Antzuolak portzentaje handiagoak dituzten bitartean, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasate txikiagoak dituzte. Debagoieneko batez bestekoari erreparatuz gero, Bergarako euskaldunen proportzioa zertxobait altuagoa da (%68,7) Debagoienekoa baino (%64,1), baina azken horretan 1981etik 1996ra bitartean hazkundea hamar puntukoa izan den bitartean, Bergaran zortzikoa baino ez da izan.

Bestalde, ez dago esan beharrik Bergara, Gipuzkoa (euskaldunak, %49,8) edo EAE (%30,9) baino nabarmen euskaldunagoa dela.

5. irudia. 1996ko hizkuntza gaitasuna Debagoieneko herriein konparatuta

Iturria: HPS

2.1.3. KALEKO ERABILERAREN NEURKETA.

Kale erabilerari dagokionez, azken urteetako neurketak kontuan hartuta, ondorengo esan genezake:


- Une honetan, haurrak dira erabilera altuena ematen dutenak eta jarraian gazteak eta zaharrak datoz. Azkenik, dezentez erabilera maila apalagoa dute helduek.
- Adin-tarte bakoitzak izan duen bilakaerari dagokionez, berriz, esan daiteke haurretan azken 10-15 urteetan ez dela bilakaera garbirik izan. Gazteetan, aldiz, igoera nabarmena izan da eta heldu eta zaharretan jaisiera orain dela 15-20 urtekoarekin konparatuta. Hala ere, ematen du helduen kasuan barrena jo zuela eta une honetan goranzko joera txikiren bat abia litekeela. Adin-tarte bakoitzak gaitasunaren aldetik izan duen bilakaera kontuan hartuta, ematen du nahiko logikoak direla emaitza horiek.

4. taula. Kaleko hizkuntza erabileraren bilakaera 1983-2001 (%)

	Haurrak (0-14)	Gazteak (15-24)	Helduak (25-65)	Zaharrak (65-..)	Guztira
1983	48	10	38	54	34
1988	55	20	38	62	40
1989	67,6	23,7	26,1	62,5	38,1
1991	65,2	48,0	32,8	50,3	44,4
1983-1991 batazb.²	59,0	25,4	33,7	57,2	39,1
1993 (Udala)	58,9	31,6	20,6	39,9	33,6
1993 (EKB)	66,0	41,6	28,8	36,4	40,5
1994	59,7	36,8	25,5	45,0	38,1
1995	66,2	38,3	25,1	47,4	37,0
1996	64,0	36,1	22,5	44,0	37,3
1993-1996 batazb.	63,0	36,9	24,5	42,5	37,3
1997	50,1	29,4	22,3	38,8	35,2
1998	62,8	46,0	30,7	39,6	41,3
1999	56,5	45,9	27,9	35,6	37,3
2000	65,5	56,7	30,3	49,9	47,2
2001	65,6	47,6	27,0	48,8	42,2
1997-2001 batazb.	60,1	45,1	27,6	42,6	40,6

² 1983-91 urteetan egindako neurketen bataz bestekoak. Gauza bera beste bi kasuetan ere.

6. irudia. Kaleko hizkuntza erabileraren bilakaera. 1983-2001 (%)



2.2.- EUSKARA ONDORENGOETARATZEA.**2.2.1. IRAKASKUNTZA.****2.2.1.1. Ikastereduen azterketa.**

Bergaran 9 ikastetxe daude, 5 pribatu eta 4 publiko. Sare publikoan eta pribatuan dagoen ikasle-kopurua oso antzekoa da (zertxobait gehiago pribatuan). Ikasle gehien dituzten ikastetxeak Aranzadi ikastola (%29,2) eta Mariaren Lagundia ikastola (%21, 5) dira, biak pribatuak. Ondoren, Ipintza institutuak du ikasle gehien (%20,2). Bergarako ikasle gehienak (%82,3) D ereduak daude matrikulaturik. A ereduak %6,6 dira eta B ereduak %2,9 baino ez.


5. taula. Bergarako ikastetxeak eta ikasleak, sarearen eta ikastereduen arabera.

2000-01 ikasturtea							
IKASTETXEAREN IZENA	SAREA	IKASLEAK		A	B	D	X
CEP ANGIOZAR LHI	PU	10	0,37			10	
CEP SAN MARTIN DE AGUIRRE LHI	PU	295	10,85	2	13	280	
CEPA BERGARA HHI	PU	219	8,05				
IEFPS MIGUEL ALTUNA GLHBI	PU	255	9,38	57		198	
IES IPINTZA BHI	PU	550	20,22	36	53	461	
CPEE ARANS-GUI HBIP	PR	3	0,11	3			
CPEE ASPACE HBIP	PR	8	0,29	8			
CPEIPS ARANZADI IKASTOLA HLBHIP	PR	795	29,23			795	
CPEIPS MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA HLBHIP	PR	585	21,51	76	13	496	
BERGARA GUZTIRA		2720	100	182	79	2240	

2.2.1.1.1. Irakaskuntza ez unibertsitaria. Ereduen bilakaera 1983-84/2000-01

Irakaskuntza ez unibertsitarioan, D ereduak nagusi da 1984-85 ikasturtetik aurrera. Nagusitasun hori, gainera, areagotu egin da ikasturtetik ikasturtera. Aitzitik, A eta B ereduak behera egin dute ia eten gabe.


**Irakaskuntza ez unibertsitaria
Bergara**



2.2.1.1.2. Irakaskuntza ez unibertsitaria. Ereduen banaketa 2000-01, irakasmilaren arabera

2000-01 ikasturtean, D ereduak nagusi da irakasmila guztietan. Hala ere, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan, D ereduaren nagusitasuna erabatekoa den bitartean (%85etik gora), Lanbide Heziketan egoera bestelakoa da. Ikasleen %59,7 D ereduaren egiten dituzte ikasketak, baina gainerako guztiak (%40,3) A ereduaren ari dira. Aipagarria da, Haur Hezkuntzan 1995-96 ikasturteaz geroztik ikasle guztiak D ereduaren dabilzala eta Lehen Hezkuntzan ere 2000-2001 ikasturtetik aurrera ez dagoela B ereduaren ikastalderik izango.

2000-01 IKASTURTEA. BERGARA



2.2.1.2. Ikastetxeen egoeraren azterketa.

Irakaskuntzaren barruan, alde nabarmena dago ikastetxe moten arabera.

Derrigorrezko Hezkuntzako³ ikastetxe guztiek martxan dituzte Euskara Normalizatzeko plangintzak. Hizkuntza gaitasunari dagokionez, egoera oso ona da, ia kide guztiak (%97.1) euskaldun alfabetatuak baitira.

Ikastetxeek berek entitate gisa duten erabilerari dagokionez, berriz, hona hemen jasotako informazioaren laburpena.

³ Multzo horretan ondorengo ikastetxeak sartu ditugu: Angiozarko ikastetxea, Mariaren Lagundia, Ipintza institutua, Aranzadi ikastola, M. Altuna institutua eta San Martin ikastetxea.

6. taula. Derrigorrezko Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua, 2000.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdin		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	1	1.4	-	-	36	49.3	6	8.2	30	41.1	73	100
Kanpo errotulazioa	-	-	-	-	11	68.8	-	-	5	31.2	16	100
Barruko jendaurreko errotulazioa	-	-	-	-	1	20	-	-	4	80	5	100
Kanpo erabilerarako elementuak	1	2.5	-	-	20	50	4	10	15	37.5	40	100
Publizitate arloa	-	-	-	-	4	33.3	2	16.7	6	50	12	100
KANPO KOMUNIKAZIOA	3	5.6	1	1.9	5	9.3	15	27.8	30	55.6	54	100
Ahozko komunikazioa	1	3.3	1	3.3	2	6.7	7	23.3	19	63.3	30	100
Idatzizko komunikazioa	2	8.3	-	-	3	12.5	8	33.3	11	45.8	24	100
BARNE KOMUNIKAZIOA	4	5	2	2.5	22	27.5	9	11.2	43	53.8	80	100
Ahozko komunikazioa	1	4.5	-	-	4	18.2	3	13.6	14	63.6	22	100
Idatzizko komunikazioa	3	5.2	2	3.4	18	31	6	10.3	29	50	58	100

Datu hauen arabera esan daiteke hezkuntza arautuko ikastetxeak gizarte esparru guztien artean normalizatuenak direla.

Bestalde, Hezkuntza arautuaren barruan, gaztetxoek klase barruko erabilerari buruzko datu batzuk ere badauzkagu. Datu hauen arabera, 13-14 urte gaztetxoek artean, gehienek (%60.5) ikaskideekin klasean beti euskaraz egiten dute, euskaraz gehiago edo bietara berdin %26.2k, erdaraz gehiago %6.4k eta beti erdaraz %4.7k.

Akademia eta eskoletan⁴ langile euskaldunak %91.7 dira. Errotulazioa eta irudia euskaraz edo bietara ageri da eta komunikazioan oro har bi hizkuntzak erabiltzen dituzte, barruko idatzietan gaztelera nagusi izan arren.

⁴ Frantsez Irakaskuntza, Ikasi, Espolon Schol of English, Hizkuntza Eskola, La Puerta al Ingles, Musika Eskola, Goierri autoeskola eta Larrañaga autoeskola.

7. taula. Akademia eta eskoletako funtzionamendua, 2000.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdin		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	18	25.3	2	2.8	24	33.8	-	-	27	38	71	100
Kanpo errotulazioa	7	36.8	-	-	6	31.6	-	-	6	31.6	19	100
Barruko jendaurreko errotulazioa	1	50	-	-	-	-	-	-	1	50	2	100
Kanpo erabilerarako elementuak	10	27	2	5.4	11	29.7	-	-	14	37.8	37	100
Publizitate arloa	-	-	-	-	7	53.8	-	-	6	46.2	13	100
KANPO KOMUNIKAZIOA	5	20.8	-	-	10	41.7	3	12.5	6	25	24	100
Ahozko komunikazioa	2	11.1	-	-	7	38.9	3	16.7	6	33.3	18	100
Idatzizko komunikazioa	3	50	-	-	3	50	-	-	-	-	6	100
BARNE KOMUNIKAZIOA	37	69.8	2	3.8	13	24.5	-	-	1	1.9	53	100
Ahozko komunikazioa	7	53.8	2	15.3	3	23.1	-	-	1	7.7	13	100
Idatzizko komunikazioa	30	75	-	-	10	25	-	-	-	-	40	100

Bestelako ikastetxeetan⁵, langileetan, euskaldun alfabetatuak erdiak inguru dira (%54) eta erdaldunak, %13.3. Irudia eta errotulazioa batez ere bietara dago, zati handi bat gazteleraz ere egon arren. Kanpo eta barne komunikazioa gehienbat gazteleraz bideratzen da, bietara ere egon arren.

8. taula. Bestelako ikastetxetako funtzionamendua, 2000.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdin		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	16	27.6	5	8.6	34	58.6	1	1.7	2	3.4	58	100
Kanpo errotulazioa	5	33.3	2	13.3	8	53.3	-	-	-	-	15	100
Barruko jendaurreko errotulazioa	1	33.3	1	33.3	1	33.3	-	-	-	-	3	100
Kanpo erabilerarako elementuak	10	32.2	2	6.4	17	54.8	-	-	2	6.4	31	100
Publizitate arloa	-	-	-	-	8	88.9	1	11.1	-	-	9	100
KANPO KOMUNIKAZIOA	9	17.6	8	15.7	15	29.4	2	3.9	17	33.3	51	100
Ahozko komunikazioa	5	15.2	6	18.2	7	21.2	2	6.1	13	39.4	33	100
Idatzizko komunikazioa	4	22.2	2	11.1	8	44.4	-	-	4	22.2	18	100
BARNE KOMUNIKAZIOA	43	64.2	6	9	15	22.4	1	1.5	2	3	67	100
Ahozko komunikazioa	9	50	5	27.8	3	16.7	1	5.5	-	-	18	100
Idatzizko komunikazioa	34	69.4	1	2	12	24.5	-	-	2	4.1	49	100

⁵ Haurtxoa haurtzaindegia, Aransgui (gorren eskola), Aspace (gazteak), Aspace (helduak), EPA eta UNED

2.2.2. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA.

2.2.2.1. Euskalduntze-alfabetatzen jardun duten bergararren bilakaera.

Jarraian azken urteetan euskalduntzen edo alfabetatzen jardun duten bergararren matrikulazio datuak emango ditugu. Azpian agertzen den taulan Bergaran bizi diren ikasleen datuak azaltzen dira zein herritan edo zein euskaltegitan ikasten jardun duten kontuan hartu gabe.

9. taula. Bergarar helduak euskalduntze-alfabetatzean, edozein herri zein euskaltegitan, 1986-2001

	Euskalduntze-alfabetatzea				
	GUZTIRA	101-106 %	107-109 %	110-112 %	Alfa %
1986-87	367	43,87	10,08		46,05
1987-88	316	47,78	9,18		43,04
1988-89	279	46,59	8,96		44,44
1989-90	273	53,48	10,62		35,90
1990-91	277	53,79	9,75	0,72	35,74
1991-92	281	51,60	6,05	1,42	40,93
1992-93	339	53,39	8,85	1,77	35,99
1993-94	353	51,84	7,65	3,97	36,54
1994-95	261	58,24	9,20	5,36	27,20
1995-96	332	54,22	9,04	14,76	21,99
1996-97	322	48,45	16,15	9,63	25,78
1997-98	295	43,05	12,54	21,02	23,39
1998-99	278	45,68	11,87	24,46	17,99
1999-00	258	52,71	9,69	26,74	10,85
2000-01	214	53,74	8,41	21,50	16,36

Iturria: HABE

2.2.2.2. Azken urteetako emaitzak

Atal honetan herriko euskaltegietan 1986-87 eta 1998-99 ikasturteen artean euskarazko eskoletan ibili ziren bergararrek izandako emaitzak aztertuko ditugu. Horretarako ikasle eta matrikula kopurua, ikasle berriak eta bajak, urratsik gainditu ez duen ikasle kopurua eta gainditutako urrats kopurua hartuko ditugu kontuan.

10. taula. Bergarako euskaltegien bilakaera 1986-1999 (%)

	Ikasleak	Matrikulak	Ikasle berriak		Bajak		Urratsik gainditu ez		Gainditutako urratsak*	
1986-87	327	354	327	%100	50	%15.3	132	%40.4	364	1.11
1987-88	280	306	170	%60.7	75	%26.8	121	%43.2	272	0.97
1988-89	258	302	160	%62	72	%27.9	120	%46.5	269	1.04
1989-90	238	256	151	%63.4	51	%21.4	103	%43.3	215	0.9
1990-91	250	288	154	%61.6	50	%20	98	%39.2	236	0.94
1991-92	246	263	138	%56.1	52	%21.1	122	%49.6	164	0.67
1992-93	287	310	156	%54.4	63	%22	86	%30	293	1.02
1993-94	316	328	155	%49.1	68	%21.5	114	%36.1	291	0.92
1994-95	222	240	72	%32.4	37	%16.7	94	%42.3	183	0.82
1995-96	287	293	124	%43.2	59	%20.6	79	%27.5	325	1.13
1996-97	290	300	130	%44.8	106	%36.5	89	%30.7	279	0.96
1997-98	251	259	97	%38.6	72	%28.7	87	%34.7	224	0.89
1998-99	238	254	82	%34.4	108	%45.4	79	%33.2	249	1.05

* Lehenengo zutabean kurtso bakoitzean zehar ikasle guztien artean gainditutako urrats kopurua eman da. Bigarren zutabean, berriz, batez beste ikasle bakoitzak gainditutako urrats kopurua dator.


Emaitzei dagokienez, batere urratsik gainditu izan ez duten ikasleak heren batetik gora direla ikus daiteke eta, batez beste, ikasleek urrats bat gainditzen dutela ikasturteko.

Bestalde azpimarratzekoa da urtez urte izaten den baja kopuru altua.

2.2.3. FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA**2.2.3.1. Hizkuntza-bilakaeraren tipologia**


Bergarako biztanleen erdiak baino gehiago (%55,1) euskaldun zaharrak dira. Euskaldun berriak, berriz, %10 inguru dira, baina kontuan hartu behar da hamar urte lehenago erdia zirela. Beraz, oro har, EAE osoan gertatzen ari den bezala, euskaldun berrien gorakada handia izan da.

BERGARA
Hizkuntza-bilakaera 1996

**2.2.3.2. Hizkuntza-bilakaeraren tipologia, adinaren arabera**

Euskaldun zaharren portzentajerik handienak zaharrek dituzte eta adinak behera egin ahala portzentaje hori txikiagoa da. Hala ere, kontuan hartzekoa da gazteen artean (25-29 adin-tartean dago inflexio puntua), joera aldaketa dagoela eta gero eta euskaldun zahar gehiago dagoela. Bestalde, euskaldun berri gehienek 25 urte baino gutxiago dituzte, azken batean, adin horretatik azpikoak baitira euskara eskolan ikasi duten gehienak. Hala ere, gazteenen artean (5-9 urte), euskaldun berrien ehunekoa murriztu egiten da, euskaldun zaharren eta jatorrizko elebidunen (%13,5) mesedetan.

BERGARA
Hizkuntza-bilakaera 1996, adinaren arabera




Joera hori areagotuko balitz, familia bidezko geroratzea indartzen ari dela adieraziko luke.

Azkenik, erdaldun zaharrak gero eta gutxiago dira, batez ere gazteen artean. Izan ere, 15 urtetik beherakoen artean %2 baino gutxiago dira.

2.2.3.3. Etxeko hizkuntza-erabileraren tipologia, hiztun tipologiaren arabera, 1996


Euskaldun zahar gehienek nagusiki euskaraz (%68,2k) edo euskaraz eta gaztelaniaz (%25,6k) hitz egiten dute etxean. Jatorrizko elebidunak, berriz, batez ere euskara eta gaztelania (%68,4k) erabiltzen dute etxeko eguneroko jardunean. Nagusiki euskara erabiltzen dutenak %8 dira. Gainerakoen artean, euskararen erabilera oso txikia da. Izan ere, euskaldun berrien artean, %4,2 baino ez dira nagusiki euskaraz mintzatzen. Hala ere, aipagarria da partzialki erdaldunduen erdiak euskara eta gaztelania erabiltzea etxean.

11. irudia. 1996ko etxeko hizkuntza erabilera hiztun tipologiaren arabera



2.2.3.4. Etxeko hizkuntza, euskaldunen dentsitatearen arabera


Familiako guztiak edo ia guztiak (>%80) euskaldunak direnean, bergararrek nagusiki euskaraz hitz egiten dute etxean (%72,9). Baina euskaldunen dentsitateak behera



egiten duenean, euskararen erabilera askoz txikiagoa da. Izan ere, familiako euskaldunak %60 eta %80 bitartean direnean, nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak %18,5 baino ez dira eta hortik behera, ia inork ez du nagusiki euskara erabiltzen.

2.2.3.5. Etxeko hizkuntza erabilera, adin-taldeka

13. irudia. 1996ko hizkuntza erabilera adin taldeka




Etxean euskara gehien erabiltzen dutenak 65 urtetik gorakoak eta bereziki 80-84 adin-tartekoak dira. Adinean beherantz joan ahala, euskararen etxeko erabilerak ere beherantz egiten du erabilera puntu baxuena 25 eta 34 urtekoen artean egonik. Baina 25 urte baino gazteagoak direnen artean berriro ere gora egiten du.

Gaztelarak etxeko hizkuntza bezala alderantzizko bidea erakusten digu: zaharrenetan oso gutxi dira etxean gaztelara bakarrik erabiltzen dutenak, 30-34 urte ingurukoak dira gehien erabiltzen dutenak eta gazteenetan berriro ere behera egiten du gaztelaren erabilerak.

Euskara eta gaztelara, biak, erabiltzen dituztenen ehunekoak ez du gora-behera handirik adinaren arabera eta %12 eta %25 bitartean mantentzen da. Beharbada gazteenen artean –20 urtetik beherakoengan- ikus daiteke portzentaia honen igoera apal bat. Beste hizkuntza bat erabiltzen dutenak oso gutxi dira adin-taldekako bilakaera aztertzeke.

2.2.3.6. Etxeko hizkuntzaren bilakaerari buruzko zenbait kontsiderazio.

14. irudia. Etxeko hizkuntza-erabileraren bilakaera 1991-1996 (%)



Iturria: HPS (1996ko datuak) eta EUSTAT (1991ko datuak)

Etxean euskara hutsez egiten dutenen pisua lau puntuz ahuldu da 1991tik 1996ra bitartean (%38,3raino), euskara eta erdararen –biak batera- eta gaztelania hutsaren erabileraren mesedetan. Baina adin-tarteka aztertuz gero, etxean euskara hutsa erabiltzen dutenen proportzioak gorantz egiten du, berriz, 24 urtetik beherakoan artean.

Aldiz, hizkuntza gaitasunak gora egin du. Hau da, bergarar euskaldunen kopurua hazi egin da baina euskararen etxeko erabilera murriztu. Hasiera batean kontraesan bat dagoela esan daiteke eta, beraz, ustezko kontraesan hauek azaltzen saiatuko gara.

Lehenengo eta behin esan behar da, etxeko erabileran eragiten duten bi faktore inportanteenetan, (familiaren euskaldun-dentsitatea eta familiako kideen hizkuntza bilakaeraren tipologia), lehenengoan egoera hobetu egin dela baina bigarreanean txartu:

- Familiaren euskaldun-dentsitateari dagokionez, oro har egoera gutxi aldatu da.
- Familiako kideen hizkuntza bilakaeraren tipologiai dagokionez, berriz, Bergarar guztiak hartuta, euskaldun zaharrak %1,5 gutxitu dira azken 10 urteetan eta jatorrizko elebidunak beste %1,2.

Erabileraren ahultze horren arrazoa, beraz, adineko euskaldun petoen gutxitzean eta helduen belaunaldietan erdaldunek izan duten igoeran datza, seguru asko. Ildo horretatik, gogorarazi behar dugu, (Ikus 7. orrialdean, 2.1.2.4. puntua, *hizkuntza gaitasunaren bilakaera adin-taldeka*) 30-75 arteko adin-tartean, oro har, gaur egun euskaldunen ehunekoak orain 15 urte zirenen antzekoak (30-50 adin-tartean) edo nabarmen txikiagoak (50-75 adin-tartean) direla. Pentsatzekoa da euskara-gaitasun murrizteko adin-tarte horiek erdara ezartzen dutela etxeko hizkuntza gisa, seme-alabak euskaldunak badira ere. Kontuan izan behar da familia baten barruan bertako partaide guztiek ez dutela leku edo zentralitate berdina izaten eta beraz, ezta familiako hizkuntza zein izango den definitzerakoan pisu berdina ere. Bikote nagusiak leku berezia izaten du familian eta ondorioz, hizkuntzari dagokionez, bikote-hizkuntzak asko baldintzatzen du familia hizkuntza.

2.2.3.7. Familia, etorkizunera begira.

Aurreko azalpena zuzena izanez gero, hemendik denbora laburrera beren familia osatuko duten guraso berri eta euskaldunen eraginez, etxean euskara soilik erabiliko dutenen proportzioak berriz gorantz egin beharko luke.


Halere, gertaera horren bilakaera gertutik jarraitu beharko da datozen urteetan.

Bikote hizkuntza euskara edo beste bat izaterakoan, ondoko aldagaiek hartzen dute garrantzia⁶:

- Euskaldunen dentsitatea
- Elebitasun mota
- Euskararekiko jarrera

Euskaldunen dentsitatea handiagoa izatea nahiko bermatua izango da belaunaldi gazteetan (25 urtez azpikoetan) euskaldunen portzentajeak zaharragoetan baino askoz handiagoak dira eta. Hona hemen, adibidez, 1996an familia izateko adinean zeudenen eta hemendik 10 urtera izango direnen euskara-gaitasunaren arteko konparaketa:

⁶ Arruti Landa, Iñaki(1997) Euskararen familia bidezko jarraipena, *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 22-23 zk., 92 orr.

15. irudia. Guraso izateko adineko bergarar euskaldunen balizko bilakaera, 1996-2011 (%)

Beraz, nahiko ziurra da etorkizuneko bikoteetan biak euskaldunak izateko aukera handia izango dela. Gakoa bikote horiek beren famili bizitza euskaraz eraikitzean egongo da.

Eta, horretarako, elebitasun motak garrantzia berezia izan dezake aztertzen ari garen kasuan. Guraso izateko garaian dauden pertsonetan, euskaldunen portzentajeek gora egin arren, beraien euskara maila eskasa izan daiteke eta ondorioz, gaztelerara jotzeko joera egon daiteke. Horren azalpen garbia Arrutik ematen digu:

“...erabileran eragiten duen bigarren aldagaia (elebitasun mota) ez da hain itxaropentsua, zeren elebidun berri gehienak (ama-hizkuntza euskara izan ez eta irakaskuntzaren bidez elebidundu direnak) ez baitira kasu gehienetan euskal elebidunak eta honek, ondorioztat, bikote-hizkuntzan (eta, beraz, ia ziurtasun osoz, haurren ama-hizkuntzan eta famili hizkuntzan) aurrikus zitekeen besteko onurarik ez izatea ekar baitezake, inertzia hauek horrelakoak izan ez daitezen ahaleginik egin ezean behintzat, hots: motibazioak indartu, hizkuntz tipologiak positibatu eta optimizatu eta erabilera-esparruak (euskarazko harreman sareak) areagotu.” (1997:95)

Beraz, euskaldun gehiago izateak ez dakar berez etxean euskara gehiago erabiltzea. Etxeko partaideek euskaraz gaitasun eta erraztasun handiagoa izan behar dute. Horrek soilik indartu eta bultzatuko luke euskararen erabilera etxean.

Bergararen kasuan, itxaropenerako arrazoirik ematen digu gazteetan euskararen kaleko erabilerak azken urteetan izan duen gorakadak.

2.2.4. ONDORENGOETARATZEAREN EMAITZA OROKORRAK

Euskararen ondorengotaratzeari lotuta, euskarak irabaziak eta galerak izan ditu, baina lehenengoak handiagoak izan dira (%17,9) azkenekoak baino (%2,6). Irabazi eta galerei dagokienez, adin-talde guztietan irabaziak galerak baino handiagoak dira eta, adinean beherantz joan ahala, irabaziak handituz doaz, eta baita galerekiko aldea ere. Honako koadro honetan azaltzen da galera-irabazioi buruzko laburpena:

11. taula. Ondorengoetaratzearen emaitza orokorrak, 1996.

Euskararentzako irabaziak (%17.9) =	Euskaldun berriak (%9.9) + Partzialki euskaldun berriak (%8)
Euskararentzako galerak (%2.6) =	Gutziz erdaldunduak (%0.5) + Partzialki erdaldunduak (%2.1)

Edozein modutan, bada ahaztu ezin zaigun kontu bat: gazte eta ume euskaldunen arteko askok, bakarrik eskolaren bidez jaso dute euskara, eta euskara familia bidez ondorengoetaratzeak ematen duen hizkuntz jatortasuna eskuratzea zaila gertatuko zaie.

2.3.- EUSKARAREN ERABILERA.

Etxeko erabilerari buruzko informazioa ondorengoetaratzean sartu dugu eta **kaleko erabilerari** buruzkoa, berriz, oinarrizko datuetan, 2.1.3. atalean. Ikastetxeen funtzionamenduari buruzko informazio ere, Irakaskuntza-ren barruan landu dugu.

Beraz, jarraian, **gainontzeko gizarte esparruetako bakoitzean euskararen erabilera nolakoa den** aztertuko dugu. Bertan emango den informazio gehiena 1999-2000 ikasturtean zehar egindako datu-bilketa batetik eskuratutakoa da. Hala ez denean, adieraziko dugu. Hona hemen kasurik gehienetan jaso ditugun datuen zerrenda. Hala ere, ondorengo orrietan informazio hori oso laburtuta emango dugu.

12. taula. Hezkuntzan aztertutako aldagaiak

HIZKUNTZA GAITASUNA	IRUDIA eta ERROTULAZIOA		KANPO KOMUNIKAZIOA
<u>Zuzendaritza batzordea</u>	<u>Kanpo errotulazioa</u>	<u>Kanpo erabilerarako elementuak</u>	<u>Ahazko komunikazioa</u>
Lehendakaria	Izen komertziala	Menbretea edo logotipoa	Telefono harreran
Lehendakari ordea	Errotulu nagusia	Zigilua	Kanpo jarduerak, ekitaldi publikoak
Idazkaria	Ordutegia	Bestelako zigiluak	Megafonia
Diruzaina	Bestelako ohar eta idatziak	Faktura edo ordainagiriak	Begiraleekin egindako jarduerak
Besteak	<u>Barruko jendaurreko errotulazioa</u>	Albaranak	Bazkideekin, gurasoekin
GUZTIRA	Ageriko idazkiak eta oharak	Poltsak edo biltzeko papera	Udalarekin
<u>Pertsonal ordaindua</u>	<u>Publizitatea</u>	Gutun azala	Federazioarekin
Jendearekin harremanetan	Irratia	Inprimakiak	Finantza erakundeekin
Jendearekin harremanik ez	Prentsa eta aldizkariak	Kutxako tiketa	Bestelako erakundeekin
GUZTIRA	Telebista	Fax makinaren azala	<u>Idatzizko komunikazioa</u>
<u>Borondatezko pertsonala</u>	Ettxera bidalitako publizitatea	Fitxak	Kanpo jarduerak, ekitaldi publikoak
Jendearekin harremanetan	Poltsak, egutegiak, kamisetak	Bazkide txartelak	Begiraleekin egindako jarduerak
Jendearekin harremanik ez	Telefono gidako informazioa	Bisita txartelak	Bazkideekin, gurasoekin
GUZTIRA		Loteria, zozketak	Udalarekin
		Telefono erantzungailua	Federazioarekin
BARNE KOMUNIKAZIOA	IRIZPIDEAK	JARDUERAK	IRAKAS JARDUERAK
<u>Ahazko komunikazioa</u>	<u>Kontratazioa</u>	<u>Jardueren inguruko informazioa</u>	<u>Ikasle kopurua</u>
Lan bileretako hizkuntza	Langileen hautaketan	Kartelak	Ikasleen adina
Langileen arteko harremana	Kontratututako langileak	Diptikoak	Irakasleen hizkuntza tipologia
<u>Idatzizko komunikazioa</u>	Kontratututako langile euskaldunak	Sarrerak	Prestakuntza profesionaleko ikastaroak
Kontu liburuak		<u>Komunikabideetan publizitatea</u>	Jardueraren hizkuntza
Programa informatikoak	<u>Formazioa</u>	<u>Jarduera</u>	Ikasleek irakasleekin
Makinen testua	Ikastaroetara joateko erraztasuna	Aurkezpena	Ikasleen arteko hizkuntza
Urteko balantzea	Ikastaroetara joandako langileak	Jarduera	
Tcak eta gizarte segurantzak	<u>Erabilera</u>		
Kontratuak eta nominak	Harrera euskaraz egiteko irizpidea		
Estatutuak eta barne araudia	Komunikazio idatziak euskaraz		
Barne inprimakiak	Hizkuntza aholkularitza zerbitzuak		
Lan egutegia	Hizkuntza autonomiarako elementuak		
Proiektu, memoria, aurrekontuak	Formazio profesionaleko		
Bilera deiak, aginduak	hizkuntza		
Bilera aktak	Ikastaroetako dokumentuen		
	hizkuntza		

2.3.1. ADMINISTRAZIOA

2.3.1.1. Udala

Udalean, 1989tik hona egon da euskara bultzatzeko plangintzaren bat martxan.

Udal langileen hizkuntza gaitasunean, 3. edo 4. hizkuntz eskakizuna lortuta langileen %37.4 daude, 2. hizkuntz eskakizunarekin %23.2, 1. hizkuntz eskakizuna lortuta %19.2 eta ez dute hizkuntz eskakizunik lortuta langileen %20.2k.

13. taula. Udaleko langileen hizkuntza gaitasunaren bilakaera, 1990-2001 (%)

	1990	2001
Ezer ez daki	33,3	15,8
Zerbait daki (1.-6. urratsa)	4,8	2,1
Alfabetatu gabea edo 1. HE	44,8	13,7
Zerbait alfabetatua edo 2. HE	13,3	26,3
EGA edo 3. HE	2,9	24,2
EGA baino altuagoa edo 4. HE	1,0	17,9

Kanpoko idatzizko komunikazioan 2001eko datuen arabera Udalak kanpora bidaltzen dituen idatzien (beti ere, erregistroan gordetzen den orria kontuan hartuta) %39 euskara hutsez egiten da, %58 bietara eta %3 erdaraz. Euskaraz, batez ere, entitate publikoekin egiten da eta bietara herritarrekin. Barruko komunikazioan, ahozkoan, udal barruko bilera guztiak euskaraz egiten dira. Idatzizkoan ere, gehienbat euskara erabiltzen da. Hona hemen 94tik 2001era idatzien irteera eta sarreretan izandako bilakaera:

14. taula. Udal erregistroko irteeren hizkuntzaren bilakaera, 1994-2001

Nora	BIETARA				GAZTELERAZ				EUSKARAZ			
	94	99	01	Aldea 94-01	94	99	01	Aldea 94-01	94	99	01	Aldea 94-01
Eusko Jaurlaritzara	58,4	10	9	-49,4	13,9	1	0	-13,9	27,7	87	90	62,3
GFA	79,6	14	10	-69,6	3,3	1	1	-2,3	17,1	84	89	71,9
Udaletara	16,7	7	70	53,3	11,1	1	0	-11,1	72,2	92	29	-43,2
Entitate publiko + ikaste.	42,2	15	19,2	-23	24,2	8	9	-15,2	33,7	76,5	71,8	38,1
Herritarrei	92,4	80	83	-9,4	2,8	2	1	-1,8	4,8	17	15	10,2
Entitate pribatu + elkarte	70	65	71	1	23,2	11	7	-16,2	6,8	24	29	22,2

15. taula. Udal erregistroko sarreren hizkuntzaren bilakaera, 1994-2001.

	BIETARA				GAZTELERAZ				EUSKARAZ			
Nondik	94	99	01	Aldea (94-01)	94	99	01	Aldea (94-01)	94	99	01	Aldea (94-01)
Eusko Jauriaritzatik	58,8	68	75	17,2	36,7	11	13	-23,7	11,4	20	11	-0,4
GFA	96,3	80	88	-18,3	1,5	10	2	0,5	2,2	9	10	7,8
Udaletatik	38,4	80	58	19,6	14,3	10	11	-3,3	47,6	8	10	-37,6
Entitate publiko + ikaste.	28,6	49	56	27,4	54,1	38	34,5	-19,6	17,3	12	10	-7,3
Partikularrek	0	0	10	10	83,5	75	58	-25,5	16,5	25	32	15,5
Entitate pribatu + elkarte	29,4	10	16	-13,4	66,3	60	60	-6,3	4,3	30	24	19,7

*Oharrak:

- Oharririk garrantzitsuenak **inprimakien hizkuntzaren datua jasotzeko irizpideari** buruzkoa da; 94an inprimakia bera ele bietan baldin bazegoen ele bietako moduan jasotzen zen, baina 1997an irizpide hori aldatu egin genuen eta harrezkero aldiro-aldiro herritarrek edo dena delakoak zein hizkuntzatan bete duen jasotzen da. Honek Diputazioaren datuetan, entitate pribatuen kasuan eta herritarren datuetan dauka eraginik handiena. Hori dela eta, partikularren sarreren kasuan, 94ko eta 99ko datuak Euskara Zerbitzuko erregistroko 100 dokumentu begiratuta egindako laginketa batetik ateratakoak dira.
- Bestalde, **Udalen kasuan**, lehen urte osoan 10 bat izaten ziren, baina azken 2 urteetan erroldako jakinarazpen berri batzuk egiten hasi direnetik 200 ingurura gehitu dira, eta horren eraginez euskara hutsezko portzentajea gutxitu.

2.3.1.2. Justizia

Justizian, 2000. urtean jasotako datuen arabera, langileen %39.5 da euskalduna eta %7 ia euskalduna. Epaitegi baten ere ez dira langile guztiak euskaldunak. Irudi eta errotulazioan, hainbat elementu daude elebietan baina kasu horietan ere itzulpen zaharkituak dira. Kanpo eta barruko komunikazioa gazteleraz gauzatzen da. Hizkuntza irizpideetan, langileen kontratazioan euskara jakitea kontuan hartzen omen da kasu batzuetan beti ere balorazio mailan eta euskarazko ikastaroetara joateko laguntza ematen dute

2.3.1.3. Anbulatorioa

Anbulatorioan, langileen %54.8 da euskalduna. Irudi eta errotulazioan elementu gehienak bietara daude. Kanpo eta barruko komunikazioa gazteleraz dago. Hizkuntza irizpideetan, Osakidetza berak finkatzen dituenak daude. Langileen kontratazioan euskara jakitea merezimendutzat jotzen da eta euskarazko ikastaroetara joateko laguntza ematen dute.

2.3.2. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK

Ez da gai honi buruzko azterketa sakonik egin baina zenbait informazio jaso da. Jarraian, beraz, emango ditugu hiru punturi buruzko azalpenak: udalaren beraren webguneari buruzko aipamena, une honetan Debagoienan abian jarri nahi den proiektu bati (*e-debagoiena* proiektuari) buruzko informazioa eta Bergarako entitateen webguneei buruzko informazioa, laginetaz lortua.

Udaleko webgunea. Une honetan ari da Udala webgune berria prestatzen. Sarrerako orria euskaraz zabalduko da beti eta praktikan udal-webguneko eduki guztiak ele bietan agertuko dira.

Edebagoiena. Debagoiena teknologia berriez hornitzeko eta gizartea teknologia berrietan ohitzen joateko sortutako egitasmo berritzailea da. Bultzatzaileak Mondragon Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritza, Euskaltel, Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Debagoieneko Mankomunitatea eta Debagoieneko udal guztiak dira. Egitasmoaren arduradunen arabera, «bailara lehenbailehen informazio gizartean sartzea» da beraien helburua. Besteak beste, telekomunikazio-azpiegiturak bultzatzea eta, aplikazio zehatzen bidez, eragile ekonomiko eta sozialei haien erabilera erakustea izango dira abiatuko dituzten ekimen konkretuak.

Horren egitasmo garrantzitsu bezain interesgarriaren inguruko zerbitzuak, gaztelaniaz eta ingelesez eskaintzearekin batera, euskaraz ere eskainiko dira, Debagoiena eskualdearen errealitate soziolinguistikoari erreparatuz.

Herriko webguneen hizkuntza. Bergarako entitateek sortutako 15 webgune aztertu dira eta hauek izan dira emaitzak (2002ko datuak):

- Euskaraz: 1 (%7)
- Euskara ere bai: 7 (%46)
- Euskararik ez: 7 (%46)

2.3.3. ENPRESA MUNDUA.

2.3.3.1. Zerbitzuak

Zerbitzuen⁷ alorrean dihardu lanean bergararren %41,28 Alor oso inportantea da, beraz. Bertako langileen %70 euskaldunak dira (eta hauetatik erdiak alfabetatuak), herritarren batez bestekoa baino zerbait altuagoa. Irudi eta errotulazioan %27 euskara hutsez dagoen bitartean, %17.3 dago bietara. Zerbitzuok egiten duten publizitatean euskara da nagusi (Berrigara-n egiten den publizitatearen eraginez) eta barruko jendaurreko errotulazioan aldiz, gaztelera. Kanpo komunikazioan, gehiago komunikatzen da ahoz eta, gainera, erabiltzen den hizkuntzari dagokionez ere, ahoz euskaraz gehiago egiten da (%18.6) idatziz baino (%8.6). Barruko komunikazioan, ahozkoan gehienbat gaztelera hutsa erabiltzen da (%53) eta idatzietan apenas agertzen da euskararik (%93 gaztelera hutsez).

⁷ Atal honen barruan ondorengo arlo hauetako informazioa jaso zen: osasun zerbitzu pribatuak; merkataritza; ostalaritza; aholkularitza, aseguru eta finantza zerbitzuak; zerbitzu bereziak eta gremioak; zerbitzu pertsonalak eta bestelako zerbitzuak.

16. taula. Euskararen erabilera zerbitzuetan, 2000.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdin		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	2517	53	130	2.7	692	14.6	127	2.7	1280	27	4746	100
Kanpo errotulazioa	384	38.5	32	3.2	150	15	41	4.1	390	39.1	997	100
Barruko jendaurreko errotulazioa	596	70.9	49	5.8	115	13.7	31	3.7	50	5.9	841	100
Kanpo erabilerarako elementuak	1475	61.5	40	1.7	333	13.9	30	1.3	522	21.7	2400	100
Publizitate arloa	62	12.2	9	1.8	94	18.5	25	4.9	318	62.6	508	100
KANPO KOMUNIKAZIOA	1452	49.1	541	18.3	100	3.4	350	11.8	517	14.5	2960	100
Ahoko komunikazioa	1207	45.8	522	19.8	71	2.7	346	13.1	489	18.6	2635	100
Idatzizko komunikazioa	245	75.5	19	5.8	29	8.9	4	1.2	28	8.6	325	100
BARNE KOMUNIKAZIOA	2836	88.4	98	3.1	95	3	76	2.4	104	3.2	3209	100
Ahoko komunikazioa	214	53	70	17.3	14	3.5	60	14.8	46	11.4	404	100
Idatzizko komunikazioa	2622	93.5	28	1	81	2.9	16	0.5	58	2.1	2805	100

Hala ere, zerbitzuen barruan ere arloen artean badago alderik. Oro har, euskararen presentzia handiena ostalaritzan, zerbitzu pertsonaletan (ile-apaindegi, bidai agentzia, tindategiak...) eta merkataritzan agertzen da. Euskara gutxien agertzen diren arloak, berriz, osasuna, gremioak eta bestelako zerbitzuak dira.

Ez dugu arlo bakoitzari buruzko informazio xeheagorik emango.

Zerbitzuen bilakaera orokorra

17. taula. Zerbitzuen bilakaera, 1993-1995-2000.

HIZKUNTZA GAITASUNA		Zerbitzuak (orokorra)					
		1993		1995		2000	
		Eusk.	Bietara	Eusk.	Bietara	Eusk.	Bietara
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	Langileak	%64.5		%66.1		%71.1	
	Errotulu nagusia	%22.8	%18.7	%34	%17.2	%46.4	%18.8
	Barneko ageriko errotulazioa	-	-	%7.5	%18.5	%5.9	%17.4
	Kanpo erabilerarako elementuak	-	-	%6.9	%13.8	%21.7	%15.2
	Poltsak, biltzeko papera	-	-	%22.1	%23.3	%37.4	%25.9
KANPOKO KOMUNIKAZIOA	Bezeraok (ahoz)	%34.5	-	%36	-	%37.2	%6.5
BARRUKO KOMUNIKAZIOA	Langileak (ahoz)	%29.6	-	%31.3	-	%29.3	%3

Igoera nabarmenena kanpo errotulazioan, kanpo erabilerarako elementuetan eta poltsa, biltzeko paper eta halakoetan agertzen da.

Aipagarria da arlo honetan azken bizpahiru urteetan Udala egiten ari den normalizazio-lana. Esango genuke lan horren eraginez, idatzizko kanpo irudian aurrerapen nabarmena egin dela azken urteotan.

2.3.3.2. Industria

Industrian dihardute lan egiten duten bergararren %52,9k. Langile horietako %59.3 euskalduna da. Biztanleria guztia hartuta baino nabarmen erdaldunagoa da, beraz, industria. Hala ere badago alderik euskaldunen portzentajea langileen (%57.8) eta arduradunen (%69.4) artean. Irudi eta errotulazioan, kanpo komunikazioan eta barne komunikazioan erdara hutsaren presentzia nabarmena da, %84, %60 eta %87, hurrenez hurren. Euskararen aldeko irizpideei dagokienez, langileak euskara ikastaroetara joateko nolabaiteko laguntzaren bat ematen dute enpresen erdiek.

1999-2000 ikasturtean inkesta pasatu zenean, Euskara Normalizatzeko Plangintzaren bat martxan jartzeko nolabaiteko asmoren bat azaldu zutenak %4,7 (6 enpresa) izan ziren. Edozein modutan, une honetan Bergaran ez dago enpresarik erabilera-planik martxan duenik.

18. taula. Euskararen erabilera industrian, 2000.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdin		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	1226	84	19	1.3	97	6.6	13	0.9	104	7.1	1459	100
Kanpo errotulazioa	178	77.7	3	1.3	22	9.6	2	0.9	24	10.5	229	100
Barruko jendaurreko errotulazioa	103	79.2	8	6.8	18	13.8	1	0.8	-	-	130	100
Kanpo erabilerarako elementuak	903	91.4	2	0.2	41	4.1	5	0.5	37	3.7	988	100
Publizitate arloa	42	37.5	6	5.4	16	14.3	5	4.5	43	38.4	112	100
KANPO KOMUNIKAZIOA	608	59.2	178	17.3	43	4.2	82	8	115	11.2	1026	100
Ahozko komunikazioa	349	46.7	168	22.4	38	5.1	80	10.7	113	15.1	748	100
Idatzizko komunikazioa	259	93.2	10	3.6	5	1.8	2	0.7	2	0.7	278	100
BARNE KOMUNIKAZIOA	1208	87	77	5.5	61	4.4	23	1.7	19	1.4	1388	100
Ahozko komunikazioa	94	47	64	32.2	7	3.5	21	10.5	13	6.5	199	100
Idatzizko komunikazioa	1114	93.7	13	1.1	54	4.5	2	0.2	6	0.5	1189	100

Industriaren bilakaera orokorra

Jarraian azken hamar urteetan industrian izan den bilakaerari buruzko informazioa dakargu. Datuok ez dira guztiz konparagarriak kasu bakoitzean erabili zen metodologia ez baitzen bera izan: 1990ean laginketa erabili zen eta 2000n, inkesta; urte bakoitzean aztertu ziren elementu guztiak ere ez ziren berdinak izan, ez eta kasu bietan erabili ziren hizkuntza kategoriak ere. Hala ere, pentsatu dugu merezi duela datuok ematea, bertan argi ikusten baita arlo honetan ez dela apenas aurrerapenik izan. Hizkuntza normalkuntzako planik eta egitasmorik izan ez duen arlo bat da eta hori nabaritzen da, dudarik barik.

19. taula. Industriaren bilakaera, 1990-2000.

		Industria			
		1990		2000	
		Eusk.	Bietara	Eusk.	Bietara
HIZKUNTZA GAITASUNA	Enpleguak	%48.9		%59.3	
	Kanpoko idatziak	%4.9	%26.6	%5.1	%22
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	Barruko agerilko idazkiak	0.9%	%24.5	%1.7	%19
	Inprimakiak	%0.5	%16.4	%0	%3.8
KANPOKO HARREM.	Telefonoan	%25	%24	%30.7	%8.7
BARRUKO HARREM.	Laneko harremana	%40	%22	%23.6	%4.9
	Lan bilerak	%11	%21	%6.6	%1.3

2.3.4 AISIA, KULTURA ETA KIROLA, BATERA.

Oharra: atal honetan Bergarako aisia, kultura eta kirol taldeen funtzionamendua eta eskaintza batera aztertu dugu, guztiek ere aisiarekin duten lotura kontuan hartuta. Gero, aisia eta kulturako, eta kiroleko datuak bereizita azalduko ditugu.

Kultura, aisialdi eta kirol elkarrekin kideen artean, %87.5 euskaldunak dira eta elkarrekin langile guztiak euskaldunak dira. Irudi eta errotulazioan gehiena (%66.2) euskara hutsez dago. Kanpo komunikazioan ere erdia euskara hutsez dago eta ahoz idatziz baino gehiago erabiltzen da euskara. Aldiz, barruko errotulazioan euskara hutsez %36 dago eta idatzian euskararen erabilera handiagoa da (%39.8) ahozkoan (%30.6) baino.

20. taula. Kultura, aisia eta kirol elkarrekin erabilera, 2000.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdin		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	14	9.5	-	-	31	20.9	5	3.4	98	66.2	148	100
Kanpo errotulazioa	-	-	-	-	1	6.3	-	-	16	94.1	17	100
Barruko jendaurreko errotulazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	5	100	5	100
Kanpo erabilerarako elementuak	11	11.7	-	-	21	22.3	3	3.2	59	62.8	94	100
Publizitate arloa	3	9.4	-	-	9	28.1	2	6.3	18	56.3	32	100
KANPO KOMUNIKAZIOA	39	15.1	11	4.2	54	20.9	20	7.8	134	51.9	258	100
Ahozko komunikazioa	17	11.1	7	4.6	27	17.6	17	11.1	85	55.6	153	100
Idatzizko komunikazioa	22	20.9	4	3.8	27	25.7	3	2.8	49	46.7	105	100
BARNE KOMUNIKAZIOA	63	37.1	10	5.9	27	15.9	8	4.7	62	35.9	170	100
Ahozko komunikazioa	21	33.9	9	14.5	6	9.7	7	11.3	19	30.6	62	100
Idatzizko komunikazioa	42	38.9	1	0.9	21	19.4	1	0.9	43	39.8	108	100

Elkarrekin antolatzen dituzten irakas-jarduerei buruzko informazioa ere jaso dugu.

Jarduerari berari dagokionez, euskara hutsez ikastaro edo irakas-jardueren %31.6 izaten dira, eta bietara %21. Hala ere, ikasleek irakasleekin edo ikasleek beraien artean erabiltzen duten hizkuntza ez da beti jardueraren hizkuntza bera izaten. Ikasleek irakasleekin %36.7an euskara hutsez eta %20an bietara egiten duten bitartean, ikasleen artean euskara hutsez gutxiago egiten dute (%23.3) baina gehiago egiten dute bietara (%73.3).

21. taula. Elkarrekin aurrera eramandako irakas jarduerak, 2000. urtea.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdina		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Jardueraren hizkuntza	16	42.1	2	5.3	4	10.5	4	10.5	12	31.6	38	100
Ikasleek irakasleekin	12	40	1	3.3	5	16.7	1	3.3	11	36.7	30	100
Ikasleen artean	1	3.3	-	-	6	20	16	53.3	7	23.3	30	100

Elkarrekin antolatzen dituzten bestelako jardueren kasuan, berriz, jarduerari buruzko informazioaren %42.2 ematen da euskara hutsez eta bietara %46.7. Sail honetan euskara gehien komunikabideetako publizitatean eta sarreretan erabiltzen da. Jarduerari berei dagokionez, %85.7 euskara hutsez dira. Aurkezpenetan, %33.3 euskaraz dira eta %60 bietara.

22. taula. Elkarrekin gauzatutako jarduerak, 2000. urtea.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdina		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Jarduerari buruzko informazioa	4	8.9	1	2.2	14	31.1	7	15.5	19	42.2	45	100
Aurkezpena	1	6.7	-	-	8	53.3	1	6.7	5	33.3	15	100
Jarduera	1	14.3	-	-	-	-	-	-	6	85.7	7	100

Elkarrekin erabileraren bilakaera

Bilakaeraren berri ematean, hizkuntza gaitasuna, irudia eta errotulazioa, kanpo komunikazioa eta barruko komunikazioaren atalak aztertuko ditugu.

23. taula. Elkarrekin hizkuntza egoeraren bilakaera, 1990-2000.

		Elkarrekin			
		1990		2000	
		Eusk.	Bietara	Eusk.	Bietara
HIZKUNTZA GAITASUNA	Bazkideak	%78.8		%71.6	
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	Errotulu nagusia	%25	%43	%100	-
	Barruko ageriko errotulazioa	%46.7	%38.4	%100	-
	Kanpo erabilerarako elementuak	%15.6	%21.9	%66	%22.3
KANPO KOMUNIKAZIOA	Kanpo jarduerak	%57.7	%12.9	%83.4	%16.7
	Bazkide, gurasoekin harrem.	%23.3	%43.3	%44	%40
BARRUKO KOMUNIKAZIOA	Batzar orokorrak	%31.8	%36.6	%35.7	-
	Zuzendaritza Batzarrak	%35.4	%22.6	%50	%13.8

Datuok erakusten dute gaitasunean zerbait behera egin arren (normala da, 25-75 adin-tartean beherakada egon dela kontuan hartuta), erabileran nabarmen hobetu dela. Hor garrantzi berezia izan du Euskararen Hitzarmenaren barruan, batez ere 1991tik 1998 ingurura arte egindako lan sistematikoak, herriko ia elkarte guztiek parte hartu baitzuten hitzarmen horretan. Geroztik lan hori alboratu samartuta dago hor jardun duen teknikaria merkataritzan murgilduta dagoelako.

2.3.5. KULTURA ETA AISIALDIKO ELKARTEAK ETA KIROLETAKOAK, BANATUTA.

Elkarteetan kultura eta aisialdiko elkarteak eta kirol elkarteak banatu ditugu. Ondorengo koadroetan ikus litekeenez, kultura eta aisialdiko taldeetan euskararen erabilera handiagoa da aspektu guztietan kirol elkarteetan baino.

2.3.5.1. Aisia eta Kultur taldeak.

Lehenengo eta behin argitu behar da atal honetan aztertu diren 20 elkarteetatik 18 kultur arlokoak direla eta 2 aisialdikoak edo “denbora libreko”-ak deitzen direnak. Azken bion eskaintza batez ere ume eta gaztetxoei bideratua da eta beren jarduerak euskaraz izaten dira.

24. taula. Kultura eta aisialdiko elkarten funtzionamendua, 2000. urtea.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdina		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
IRUDIA ETA ERROTULAZIOA	10	9.3	-	-	14	13.1	2	1.9	81	75.7	107	100
KANPO KOMUNIKAZIOA	21	12.5	8	4.8	26	15.5	15	8.9	98	58.3	168	100
BARNE KOMUNIKAZIOA	37	32.5	5	4.4	16	14	4	3.5	52	45.6	114	100

2.3.5.2. Kirola

25. taula. Kirol elkarten funtzionamendua, 2000. urtea.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdina		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	4	9.8	-	-	17	41.5	-	-	20	48.8	41	100
KANPO KOMUNIKAZIOA	19	20.9	4	4.4	26	28.6	5	5.5	37	40.7	91	100
BARNE KOMUNIKAZIOA	27	47.4	5	8.8	11	19.3	4	7	10	17.5	57	100

2.3.6. ERLIJIOA

Erlijioari eskainiko diogun atal honetan herrian antolatuta dauden bi elizez mintzatuko gara: Eliza katolikoa eta Jehova-ren lekukoen eliza.

Bergarako hirigunean, eliza katolikoari dagokionez, bi parrokia daude (Santa Marina eta San Pedro) eta bien artean geografikoki Bergarako herri osoa hartzen dute. Bi erakunde hauei buruzko informazio ugaririk ez dago baina interesgarria da, batez ere, jardueren inguruan garrantzia handia dutelako. Egunero ematen diren mezez gain, katekesia, sendotza, osasun pastoral, etab. eskaintzen baitira bertan.

Hiriguneko bi eliza katolikoekin ere egin da euskara normalizatzeko lanik, Hitzarmenaren bitartez. Santa Marina parrokiak lehen sinatze-aldian, hau da 1991. urtean, sinatu zuen hitzarmena eta San Pedro parrokiak, berriz, 1995ean. Hala ere, 1991tik aurrera eraman zen aurrera normalizazio-lana biek, San Pedro parrokiak horretarako nahia azaldu zuelako. 1991tik 95era bitartean lan handia egin zen katekesia euskaraz izateko eta urte horretatik aurrera ez zaie apenas jarraipenik egin katekesiak euskaraz izaten jarraitu duelako.

Zuzendaritza batzordeetan bi elizetan euskaldunak dira gehiengo. San Pedron 15 partaideetatik 11 euskaldunak dira eta horietatik sei dira alfabetatuak. Santa Marinar zuzendaritza batzordeko 12 partaideetatik 10 euskaldunak dira eta horietatik erdiak alfabetatuak.

Irudia eta errotulazioari buruzko informazio gutxi daukagu bi erlijio guneetan. Zigilua bai San Pedron eta baita Santa Marinar ere euskaraz dago eta Santa Marinar oharrak bietara jartzen dira.

Kanpo komunikazioa hizkuntzari dagokionez bi arlotan bana daiteke bi elizetan. Gurasoekin eta eliztarrekin, batez ere, bietara komunikatzen diren bitartean, erakundeekin harremana euskaraz daukate. Beraien jarduera garrantzitsuena (katekesia) ere euskaraz burutzen da.

Barne komunikazioan, bai San Pedron eta baita Santa Marinar ere zuzendaritza batzordearen bilerak gazteleraz izaten dira. Hala ere, beste hainbat bilera (Caritas-enak adibidez) euskaraz dira. Barne idatziei buruzko informazio gutxi dugu: Santa Marinar arautegia eta egutegia bietara daude eta San Pedron ere egutegia eta plangintzak bietara.

Jardueren inguruan, hainbat ekintza burutzen dituzte bi elizek:

- Katekesia: Bi elizetako haurrak bilduta 450 haur dabilta eta guztia euskaraz izaten da.
- Mezak. Santa Marinar asteguneko meza %90ean euskaraz da eta asteburuetako lau mezetatik bat euskara hutsez da eta beste hirurak bietara. San Pedron astegunetako meza txandaka egiten da, bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Asteburuetan hiru meza egoten dira, hirurak bietara.
- Caritas. Bergaran Caritas-ek burutzen dituen bilera eta jarduerak euskaraz izaten dira.
- Pastoralta. Santa Marinar pastoralta lanaren berri daukagu soilik. Osasun pastoraltan, euskara bultzatzen ari dira. Espetxe pastoraltan, preso sozialekin harremana gazteleraz da eta preso politikoekin euskaraz.

Herriko bi parrokia katolikoez gain, Jehova-ren lekukoek ere badute Bergaran beraien egoitza eta taldea.

Taldekieen hizkuntza gaitasunari dagokionez, zuzendaritza batzordeko (zaharren kontseilua) bi partaideak euskaldun alfabetatuak dira. Jehovahren lekukoek 22 eliztar dituzte Bergaran eta horietatik 14 dira euskaldunak.

Taldeak **errotulazio** guztia gazteleraz dauka. Alde batetik kanpora begirako errotulazio guztia gazteleraz dago eta baita kanpo erabilerarako elementuak ere.

Hizkuntzaren inguruan, inolako irizpiderik ez dute. **Kanpo komunikazioan**, telefono harrera euskaraz egiten dute eta kanpo jarduerak (predikautza) bietara izaten dira. Aldiz eliztarrekin duten komunikazioa gazteleraz izaten da eta baita erakundeekin duten harremana, bai idatziz eta baita ahoz ere.

Barneko komunikazioan, ahozko harreman guztiak gazteleraz dira. Idatzizko lan gutxi egiten dute eta bietara duten elementu bakarra barne araudia da.

2.3.7. SINDIKATU, ALDERDI POLITIKO ETA GIZARTE MUGIMENDUAK.

Alderdi politiko, sindikatu eta gizarte mugimenduen artean, bertako partaideetatik %64 euskaldunak dira. Hala ere, zuzendaritza batzordekoetako kideen %72 euskaldunak diren bitartean langile eta boluntarioetan %50 eta %55 dira euskaldunak, hurrenez hurren. Irudi eta errotulazioan eta kanpo komunikazioan erdia baino zerbait gehiago euskara hutsez dago. Barruko komunikazioan %40ra iristen dira euskara hutsez dauden elementuak.

26. taula. Euskararen erabilera sindikatu, alderdi politiko eta gizarte mugimenduetan, 2000.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdin		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
IRUDIA eta ERROTULAZIOA	17	15.6	7	6.4	18	16.5	5	4.6	62	56.9	109	100
Kanpo errotulazioa	4	18.2	1	4.5	3	13.6	1	4.5	13	59.1	22	100
Barruko jendaurreko errotulazioa	1	16.7	2	33.3	1	16.7	1	16.7	1	16.7	6	100
Kanpo erabilerarako elementuak	9	15.3	1	1.7	10	16.9	3	5.1	36	61	59	100
Publizitate arloa	3	13.6	3	13.6	4	18.2	-	-	12	54.5	22	100
KANPO KOMUNIKAZIOA	22	17.1	8	6.2	17	13.2	10	7.8	72	55.8	129	100
Ahozko komunikazioa	14	18.9	6	8.1	6	8.1	8	10.8	40	54.1	74	100
Idatzizko komunikazioa	8	14.5	2	3.6	11	20	2	3.6	32	58.2	55	100
BARNE KOMUNIKAZIOA	26	28.9	4	4.4	18	20	6	6.7	36	40	90	100
Ahozko komunikazioa	5	17.2	1	3.4	5	17.2	6	20.7	12	41.3	29	100
Idatzizko komunikazioa	21	34.4	3	4.9	13	21.3	-	-	24	39.3	61	100

Bestalde, entitate horiek antolatzen dituzten jardueretan erabiltzen den hizkuntzari dagokionez, esan dezakegu jarduerari buruzko informaziotik, euskara hutsean %80

Diagnosia

eman dela eta bietara %20. Sail honetan komunikabideetako publizitatea eta sarrera guztiak euskara hutsez daude. Jarduerari berari dagokionez, berriz, guztiak euskara hutsez izan dira. Aurkezpenetan, %83.3 euskaraz izan dira eta %16.7 bietara.

27. taula. Sindikatu, alderdi politiko eta gizarte mugimenduen jarduerak, 2000. urtea.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdin		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Jarduerari buruzko informazioa	-	-	-	-	2	20	-	-	8	80	10	100
Jarduera	-	-	-	-	1	9.1	-	-	10	90.9	11	100

Irakas jardueretan, berriz, euskara hutsez ikastaro edo irakas-jardueren %20 soilik burutu dira, eta bietara %26.6. Ikasleek irakasleekin izan dituzten harremanetan, berriz, %28.6an euskara hutsez egin izan duten bitartean, ikasleen artean euskara hutsez gehiago egiten dute (%50).

28. taula. Sindikatu, alderdi politiko eta gizarte mugimenduen irakas jarduerak, 2000. urtea.

	Erdaraz		Erdaraz gehiago		Bietara berdin		Euskaraz gehiago		Euskaraz		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Jardueraren hizkuntza	7	46.7	1	6.7	2	13.3	2	13.3	3	20	15	100
Ikasleek irakasleekin	4	57.1	1	14.3	-	-	-	-	2	28.6	7	100
Ikasleen artean	-	-	2	50	-	-	-	-	2	50	4	100

2.3.8. HAUR ETA GAZTETXOEI BIDERATUTAKO ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN HIZKUNTZA EGOERA (1999-2000).

Atal honetan herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako haurrak dabiltzan eskolaz kanpoko ekintzei buruzko informazioa ematen saiatuko gara. Horretarako maila horietako ikasle guztiei eskatu zitzairen beren eskolaz kanpoko ekintzen berri ematea. Hona hemen datu bilketa hartatik jasotako zenbait datu:

29. taula. Eskolaz kanpoko ekintzen hizkuntza egoera, 1999-2000 ikasturtea

	DLH	DBH	Guztira
Ikasleak	574	601	1175
Orduak	3040	3366	6406
Ikasleko orduak	5.4	5.8	5.6
Euskarazko orduak	%98 (2987)	%76 (2545)	%86.6 (5532)
Ekintza guztiak euskaraz egiten dituztenak	%88 (503)	%68 (420)	%78 (923)

Iturria: Euskara Zerbitzuak pasatako inkesta

Eskolaz kanpoko ekintzetan, 1999-2000. ikasturtean, ikasle bakoitzak, batez beste, 5.6 ordu sartzen zituen astero. DLH (Derrigorrezko Lehen Hezkuntza)-koek batez bestekoa baino ordu gutxiago ematen zituzten (5.4) eta DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)-koek zerbait gehiago, 5.8 ordu.

Haur guztiek eskolaz kanpoko ekintzetan astean pasatzen zituzten 6389 orduetatik, 5532 euskaraz izaten ziren, %84.7. Beraz, oro har, euskara nagusi da eskolaz kanpoko ekintzetan. Hala ere, DLH eta DBHko ikasleen artean badago alderik: DLHn eskolaz kanpoko orduen %98 ziren euskaraz eta DBHn %76. Beraz, haurrak kozkortu ahala gero eta gutxiago erabiltzen dute euskara eskolaz kanpoko ekintzetan.

Ugari dira beraien eskolaz kanpoko ekintza guztiak euskaraz egiten dituzten haurrak: %78. Horretan ere, ezberdintasunak daude DLHtik DBHra. Gaztetxoenen artean %88ra iristen dira ekintza guztiak euskaraz egiten dituztenak eta DBHkoen artean %68 dira.

30. taula. Eskolaz kanpoko ekintzen egoera, 1999-2000

Ekintza	Euskara hutsez egiten duten ikasleak
Musika	%99 (209)
Kirola	%98 (313)
Katekesia	%98 (323)
Instrumentua	%95 (190)
Partikularra	%86 (73)
Inglesa	%86 (183)
Pintura marrazketa	%60 (53)
Futbola	%58 (121)
Informatika	%6 (6)

Datuetan ikus daitekeenez, euskararen erabilera ez da ekintza guztietan berdina. Hala ere, esanguratsua da haur eta gaztetxo gehien biltzen duten ekintzetan ia ikasle guztiek euskara hutsez jardutea. Musikan eta instrumentuan, kirolean eta katekesian euskararen erabilera oso altua da, %95etik gorakoa. Partikularrean eta ingeleseko klaseetan ere euskararen erabilera altua da, %86koa. Pintura eta marrazketa eta futboleko erdiak baino zerbait gehiagok egiten dute ekintza euskara hutsez (%60k eta %58k, hurrenez hurren).

Eskolaz kanpoko ekintzen hizkuntza bilakaera

Hurrengo taulan, eskolaz kanpoko ekintza esanguratsuenetan euskararen erabilerak izan duen bilakaera ikusiko dugu.

31. taula. Eskolaz kanpoko ekintzen hizkuntza-bilakaera, 90-91tik 99-2000ra.

Ekintza	90-91	92-93	99-00
Dantza	%100 (106)	%100 (123)	%100 (63)
Musika	%58 (262)	%96 (727)	%99 (209)
Kirola	-	%60 (133)	%98 (313)
Katekesia	%75 (762)	%79 (473)	%98 (323)
Instrumentua	-	%51 (276)	%95 (190)
Gimnasia erritmikoa	%42 (42)	%42 (53)	%94 (16)
Ingelesa	-	%65 (64)	%86 (183)
Partikularra	%71 (157)	%98 (42)	%86 (73)
Karatea	%21 (24)	%31 (36)	%72 (33)
Pintura- marrazketa	%51 (48)	%81 (57)	%60 (53)
Futbola	%39 (109)	%96 (71)	%58 (121)
Informatika	-	%78 (79)	%6 (6)

Ekintzen euskararen bilakaerari dagokionez, gehienek goranzko bilakaera izan dute 1990etik 2000ra. Dantzan azken hamarkadan haur guztiek euskaraz jardun dute eta musikan, kirolean, karatean, instrumentuan, gimnasia erritmikoan, ingelesean eta karatean ere euskararen erabilerak gora egin du. Bestalde, partikularrean, marrazketan eta futbolekin 90-91 ikasturtetik 92-93 ikasturtera euskararen erabilerak gora egin bazuen ere, 99-00 ikasturtean, aldiz, behera egin du.

2.4.- EUSKARAREN ELIKADURA

2.4.1. CORPUSA

Orain dela ia 15 urte argitaratu zen Bergarako Euskarari buruzko oinarritzko liburua. Harrez gero ere, hainbat lan egin dira arlo honetan:

- *Langintza zaharretako lexikoa bildu eta argitaratzeko programa.* Azkeneko mende honetan birmoldatu edo galdu egin dira mendez mendeko iraun duten langintza zaharrak.

Arrazoi horregatik jarri zuen orain dela urte batzuk abian Bergarako Udalak garai bateko UNEDeko Euskara Departamenduarekin hitzarmena eginda, Bergarako langintza zaharretako lexikoa eta jakintza bildu eta argitaratzeko programa.

Orain arte hiru lan burutu eta argitaratu dira: lehena, *Linua, ehuna eta artilea* izenburua zuena; bigarrena *Txondorrak, karobiak eta elurzuloak* izenburukoa eta azkena *Zura: arotzak eta etxegileak* izenburukoa. Bilduma osatzeko falta den lana (burdinaren ingurukoa) aurrean argitaratuko da.

- *Bergarako euskararen grabazioak digitalizatzea eta katalogatzea.* Dagoeneko badituzte 15 urte inguru Bergarako euskararen lekukotza agertzen duten lehenengo grabazioek. Grabazio horiek hondatzeko arrisku handia dutenez, digitalizatu eta katalogatzeari ekin zaio.
- *Bergara aldeko lexikoa lana osatzea eta argitaratzeko prestatzea.* Sei urte dira Bergarako herritar batek, Juan Martin Elexpuruk, Bergara aldeko lexikoa izeneko lana Euskal Herriko Unibertsitatean Doktoradutza tesitza aurkeztu zuela eta tesiaren epaimahaiaren onarpena jaso zuela. Lanari azken orraztua eman eta argitaratzeko gertatzeko hitzarmena sinatu du Udalak egilearekin.
- *Bergarako toponimia lana normatibizatzea eta argitaratzeko prestatzea.* Urte mordoak dira dagoeneko Udalak herriko toponimia jasotzeko beka argitaratu zuela. Bilketa lan hura aspaldi amaitu zen baina toponimo bakoitzaren normatibizazio-lana egitea geratzen zen. Lan horri 2002an ekin zaio Euskaltzaindiaren lankidetzarekin.

2.4.2. KOMUNIKABIDEAK

2.4.2.1. Komunikabideen audientziak, merkatu-kuotak, salmentak...


Bergararrek zein komunikabide irakurtzen, entzuten eta ikusten dituzten zehatz jakitea ez da erraza; batez ere irratia eta telebistari dagokionez, ez baita herri-mailako audientzia neurrak fidagarri izaten.

Prentsari buruzko datuak jasotzea, aldiz, errazagoa da eta horretan saiatu gara. Egunkarien artean, euskara hutsez idazten den bakarra Euskaldunon Egunkaria izanik, bergararren %2.9k soilik erosten du. Oraindik ere ez dago ohiturarik euskarazko prentsa erosi eta irakurtzeko. Aldizkarietan ere euskarazko eskaintza ez da oso handia. Alde batetik, *Argia*, *Elhuyar* edo haurrentzako aldizkari batzuek ditugu eta, bestetik, *Goienkaria* Debagoieneko astekaria, *Berrigara* herri aldizkaria barruan duela. Erosleei dagokienez, %10.4k soilik erosten dute euskarazko aldizkariaren bat. Hala ere ezin dugu ahaztu gero azalduko dugun moduan Bergarako etxe ia guztietara heltzen direla *Goienkaria* eta *Berrigara*.

32. taula. 1999an saldutako egunkariak eta merkatu kuota

	DV	Gara	Marca	Ei Mundo	Eusk. Egunk.	Deia	Ei Pais	Ei Correo	Mundo deportivo	Expan- sion	As	Erosleak
Salmentak	1774	354	168	83	78	58	36	42	50	8	5	2.656
Merka. kuota	66.7	13.3	6.3	3.1	2.9	2.2	1.4	1.6	1.9	0.3	0.2	100


16. irudia. 1999ko egunkarien salmenta



33. taula. 1999an saldutako aldizkariak eta merkatu kuotak

	Pronto	Hola	Lecturas	Semana	Mia	Diez Minutos	El Mueble	Argia	Muy interes.	Ipurbeltz	Elhuyar	Erosleak
Salmentak	285	201	133	128	102	66	64	60	38	32	28	1.137
Merkatu kuota	25.1	17.7	11.7	11.2	9	5.8	5.6	5.2	3.3	2.8	2.4	100

17. irudia. 1999ko aldizkarien salmenta




Irratiari dagokionez, ez dugu Bergarako emaitzarik eta Debagoienekoak emango ditugu. Debagoieneko audientzia handiena duten hamar irratietatik Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea dira euskaraz soilik funtzionatzen dutenak. Gipuzkoako Herri Irratian (Radio Popular) euskarazko eta gaztelerazko saioak tartekatua izaten dira. Audientziei dagokienez, beraz, %28.2k euskaraz entzuten dute irratia eta %9.9k bietara.

34. taula. 1999ko Debagoieneko irratia audientziak

	SS Ser	C.40	Pop. Gip.	Eusk Irrat	Rad Eusk	Eusk Gaz	Cope Eibar	O.Cero SS	O.Cero Eibar	R1 SS	GUZTIRA	Populazioa
Debagoiena	1.3	1.4	9.1	4	19.1	9.1	1.2	0.3	0.2	2.5	49.3	56.000

18. irudia. 1999ko Debagoieneko irratia audientziak




Telebista kateen artean gaur egun Bergaran euskaraz Etb 1 eta Goitb bailarako telebista ikusteko aukera dago. Euskarazko bi kate hauen parean, gazteleraz gutxienez beste sei kate ditugu. Audientziei dagokienez, telebista euskaraz, hau da, Etb1, %22.5k ikusten dute bailaran. GOITBren Bergarako audientziei buruzko informaziorik ez dugu.

35. taula: 1999ko Debagoieneko telebista audientziak

	Tve1	Tve2	Etb1	Etb2	Tele5	Antena3	Canal+	Beste batzuk	Populazioa
Debagoiena	26.5	7.8	22.5	24.9	28.8	14.6	5.4	6.1	56.000

19. irudia. 1999ko Debagoieneko telebista audientziak



2.4.2.2. Herriko eta eskualdeko komunikabideak.

BERRIGARA Jardun kultur elkarteak kaleratzen duen euskarazko astekaria da. Normalean 24 orrialde ditu eta, gaur egun, *Goienkaria* astekariaren barruan banatzen da.

GOIENKARIA. Debagoieneko euskararen aldeko taldeen eta Goiena komunikazio-kooperatibaren ekimenez kaleratzen den euskara hutsezko astekaria da. Asteazkenean zehar eskualdean kulturen, politikan, gizartean eta ekonomian gertatutakoaren berri ematen du. Hogeita bat mila ale doan zabaltzen ditu Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Antzuola, Elgeta, Aramaio eta Leintz Gatzagan. Egunkari formatua du. 48 orrialde ditu, erdia *Goienkarian* jorratutako gaiak hartzen dute eta beste erdia herri-aldizkariak betetzen dute. Hau da, hiru edizio desberdin kaleratzen dira. Bergarako edizioak gainerako edizioetan jorratutako gaiak gain, *Kontuola* (Antzuola), *Goibekokale* (Elgeta) eta *Berrigara* (Bergara) aldizkariak batzen ditu.

GOITB. Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak sortutako bailarako telebista. Une honetan 12-15 ordu inguru emititzen ditu eta era askotako programak ditu: albistegiak, kirol eta kultur arloko programak, eztabaida-saioak... Orain dela gutxi zabaldu da Bergarara eta oraindik ere ez da herri osoan ondo ikusten.

SUSTATU. Bestalde, Goiena Komunikazio Zerbitzuak enpresak internet bidezko “albistegi-eredu berri bat” jarri du sarean, Code&Syntax enpresaren ekarpen teknikoarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Sustatu izena du albistegi berri horrek eta Euskal Herrian berritzailea da.

Debagoieneko Goiena kooperatibak izango du euskarazko albistegiaren ardura editoriala. Jasotzen diren albisteak jendeak igorritako informazioarekin osatzen dira eta gaiak alor ezberdinetakoak izan daitezke. Jendeak bidalitako albisteetatik aukeraketa egiten da, sarean sartu aurretik.

TXAPA Irratia (97.2 FM). Bergarako irrati librea da. Euskal Herriko irrati libreek sortutako Arrosa irrati-ekoizpen zentroko partaidea da. Arrosa zentroaren helburua Euskal Herriko irrati libre guztiek batera lan egin eta ekoizpen propioak eta euskarazkoak sortzea da. Hori horrela, egunero trukaketa informatiboa eskainiko du eta egunero bi orduko irrati saio bat ekoiztuko du. Jadanik, Korrika, Herri Urrats eta Bertsolarien Txapelketa Nagusia eskaini dute zuzenean. Kasu horietan, gertakaria dagoen lekuko irratiak zabaldu ditu sareko beste irrati guztietan emititzeko.

2.4.3. LIBURUGINTZA.

Azterketa Soziolinguistikok ez da gai hau sakon aztertu. Baina zenbait informazio jaso dugu Udal Liburutegikoek emanda. Hona hemen euskarazko liburuen hornitze-mailari eta maileguei buruzko informazioa:

36. taula. Liburutegiaren hornitze-maila eta maileguak, 2002.

	Liburuak Eusk.	Liburuak Gazt.	CD Eusk.	CD gazt	Bideoak Eusk.	Bideoak Gazt.	Cdrom Eusk.	Cdrom Gazt.
Liburutegiaren eskaintza	%35	%65	%90	%10	%95	%5	%50	%50
Maileguak	%60	%40	%98	%2	%99	%1		

Irakurzaletasuna bultzatzeko bideratzen diren jarduerak berriz, euskaraz izan ohi dira eta honako ekintza hauek aipatu dizkigute:

- Ipuin kontaketak. Eskola orduetan; ikastetxe bakoitzarekin 3 bat urtean. Guztira urtean 9 bat.
- Bisita gidatuak. Liburutegia ezagutarazteko. Urtean 30 bat.
- Idazleen hitzaldiak: 2001ean bat, Pello Añorgarekin.
- Biblioporrak-gida. Oporretan irakurtzeko euskarazko zein erdarazko liburuen gida. Urtero bailara mailan.
- Irakur-puntua. Urtero: egutegia + liburutegiaren ordutegia.
- Liburuaren Eguneko kaleko liburu-postua.
- Liburutegirako poltsak.

2.4.4. PUBLIZITATEA

Publizitatea euskalduntzeko berariazko programarik ez da garatu izan, nahiz eta nahi dutenei beren iragarkiak euskalduntzeko zuzentze edo itzulpen zerbitzua ematen zaion. Bestalde, arlo honetan berebiziko garrantzia dute euskarazko herri eta eskualdeko komunikabideek. Horiei esker, gaur egun, herriko merkatariek nahiko normaltzat dute publizitatea euskaraz egitea. Hona hemen herriko merkatariek eta industria-arlokoek egiten duten publizitateari buruzko datuak, Azterketa Soziolinguistikoaren arabera:

- Herriko iragarleen publizitatea guztira:
 - Zerbitzuetaoek: %63 euskaraz; %25 bietara eta %12 gaztelaniaz.
 - Industria enpresek: %38 euskaraz; %23 bietara eta %37 gaztelaniaz.
- Herriko postontzietako publizitatea:
 - Herriko enpresena: %6 euskaraz; %47 bietara eta %44 gaztelaniaz

Datuok argi erakusten dute goian agertu duguna, hau da, euskarazko komunikabideen eragina; izan ere, guztirako datuak postontzietako publizitatearenak baino askoz hobeak dira.

2.4.5. KULTURGINTZA

2.3.4. atalean eman dugu Bergarako kultur taldeen funtzionamenduaren berri eta ez dugu atal honetan errepikatuko. Aldiz, hangoa zerbait osatzeko, Udaleko Kultur Zerbitzutik egiten den kultur eskaintzari buruzko zenbait datu emango ditugu:

- *Ipuin kontaketak*. Umeei bideratuak izan ohi dira. 2001ean 10 emanaldi; denak euskaraz.
- *Txotxongilo-emanaldiak*. Umeentzakoak, 2001ean 7 emanaldi; denak euskaraz.
- *Antzerki emanaldiak*. 20 emanaldi. 11 euskaraz, 7 gaztelaniaz eta 2 mutuak.
- *Zinea aire librean*. 2 euskaraz, 3 erdaraz.
- *Eskoletarako zinea*. HH-LH: 7 emanaldi euskaraz; DBH: 2 euskaraz eta 3 gaztelaniaz; DBH-4 eta DBHO: ez dago informazio zehatzik.

2.5.- BALIAKIZUNAK

2.5.1. BALIAKIZUN PERTSONALAK

Bergarako udalean lau pertsona ari dira une honetan lanean Euskara-Zerbitzuaren baitan: itzultzaile trebatzailea (AEBE plana abian jarri zenetik, plan horretako hizkuntza normalizatzailea dena) aldi baterako itzultzailea (5 orduko kontratuarekin), euskara suspertzailea eta hitzarmeneko teknikaria. Lau langile horietatik euskara dinamizatzaileak eta itzultzaile-trebatzaileak kontratu finkoa dute eta beste biek aldi baterakoa. Horiez aparte, HUHEZiko ikasle bat ere badabil bekadun, 4 orduko jardunean.

Euskara Zerbitzua une honetan:

ITZULTZAILE-TREBATZAILEA	B	T
ITZULTZAILEA	B	
EUSKARA SUSPERTZAILEA	C	
HITZARMENEO TEKNIKARIA	B	T

Edozein modutan, Udalak orain dela zenbait hilabete onartu zuen egitura horretan zenbait aldaketa egitea eta egitura berriaren arabera, alde batetik, *Euskara suspertzaile* lanpostua amortizatu eta *Euskara zerbitzuburu* lanpostua sortuko da, B kategoriarekin eta, bestetik, *Hitzarmeneko teknikariaren* lanpostua lanpostu finko bihurtu da.

2.5.2. EUSKARA-AURREKONTUAK

Eusko Jaurlaritzak 1999ko aurrekontuen gainean egindako azterketa sartu dugu hemen. Harrez gero, 2002an ere jaso du udaletako aurrekontuen informazioa baina horren azterketaren berririk ez dugu. 1999. urtean, Bergarako Udalak 72.490.000 pta. erabili zituen euskara sustatzeko, hau da, aurrekontu osoaren %2,78. Diru-zatirik handiena euskalduntze-alfabetatzera (%28,0) eta pertsonal gastua ordaintzera (%24,2) bideratu zen. Bestalde, funtzionamendu-gastua (%1,8) eta beste gastu-kontzeptu batzuk (%1,6) kenduta, gainerako diru-kopurua hiru zati berdintsuetan banatu zen, hau da, euskararen sustapenak aurrekontuaren %10,0 jaso zuen, elkarte desberdinei dirulaguntzetan %10,1 erabili zen eta, azkenik, txostenak eta ikerketak egiteko %11,6 gastatu zen.

Bergaran euskara sustatzeko 72.490.000 pezeta bideratu ziren 1999an, hau da, aurrekontu osoaren %2,78. Portzentaje hori C28 ereduko udalerrien batz bestekoaren gainetik dago (%2,57), baina eredu bereko Arrasateko eta Elgoibarko udalek euskarari eskaintzen dioten tartearen azpitik.

Kontzeptuka aztertuz gero, gainerako udalerrietan bezala, euskara-aurrekontuaren zatirik handiena euskalduntze-alfabetatzean (%28,0) eta pertsonal gastuetan (%33,4)

⁸ C2 eredu osatzen duten udalak: Hernani, Amorebieta, Arrasate, Beasain, Mungia, Elgoibar, Hondarribia, Bergara eta Bergara bera.

erabili da. Ondoren, zati berdintsuetan, %10 inguru, banatu zen hurrengo alorretan: euskararen sustapenean, elkarreentzako bideratutako dirulaguntzetan, eta azkenik, txostenetan eta ikerketetan.

Informazio gehigarri gisa, nahiz eta ekitaldi bereko datuak ez izan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak udal euskaltegirako 26,29 milioi pezeta eman zituen 2000-2001eko ikasturtean, eta 3 milioi udalaren euskara-programetarako 2001eko ekitaldian.

Ona litzateke udalak euskararen sustapenerako bideratzen duen aurrekontua aztertuko balu, herrian euskara biziberritzeko nahikoa duen edo gehitu beharko litzatekeen erabakitzeko. Ikustekoa da, halaber, euskara-aurrekontuak diagnosiak agerrarazten dituen beharrei ia behar bezala erantzuten dien, eta aurrekontuaren hazkundea izanez gero, zein helburutarako erabil daitekeen kopuru gehigarri hori.

2.6.- ONDORIO NAGUSIAK

Oharra: Atal hau HPSren diagnostiko-txostenetik zuzenean hartua da eta ukitu gabe dago. (2002ko martxoa)

Bergaran hamabost mila pertsona inguru bizi dira. Deba Goieneko eskualdeko udalerririk jendetsuena da, Arrasateren ostean. Izan ere, Deba Goieneko lau biztanleetatik ia bat Bergaran bizi da. Kontutan hartzeko datua da, hortaz, Bergarako eskualdean duen eragina. Indar hori, euskararen sustapenari dagokionean, oso kontuan hartzekoa da.

Bestalde, Bergarako udalak euskararen normalizazioan lan handia egin du eta egiten dihardu; aitzindari izan da, gainera, zenbait alorretan: administrazioan, batik bat. Bergarako udalean ezarri baitzen estreinako aldiz, Antzuolako udalarekin batera, Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz programa. Testuinguru horretan, herri-administrazioetan euskararen erabilera era mailakatuan sustatu eta normalizatzeko martxan jarri zen, proiektu-pilotu gisa, Bergarako udalean nahiz Antzuolan, AEBEMET metodologia.

Aurreko ekimenak, udalaren barruko jarduera euskalduntzeko ahalegin horrek, eta baita udalerrian, euskararen erabilera areagotzeko egindako ahaleginek, erakusten dute Bergarako udalak euskara normalizatzeko egin duen apustu indartsua. Dударik gabe, EBPB udalean garatzeko bidearen zati handia egina dute; baina, zalantzarik gabe, oraindik badago zereginik, euskaldunen kopurua handitzea eta euskararen erabilera Bergarako gizarte-esparru guztietan zabaltzea nahi badugu.

Eskualdeko eremua ahaztea ez da komeni, euskalgintzan bereziki, udalerrien arteko lankidetzaz ugaria baita. Hainbat adibide eta egitasmo garatu dituzte elkarrekin. Besteak beste, ikusiko dugunez *Kirola Euskaraz* programa.

2.6.1. EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA. DATU OROKORRAK

Bergarako biztanleen bi heren baino gehiago (%68,7) euskaldunak dira, eta bere bilakaera goranzkoa izan da azken hamabost urteotan. Izan ere, 1981etik 1996ra bitartean, euskaldunen portzentajea 6 puntu baino gehiago hazi baita. Erdaldunena, berriz, jaitsi egin da; denbora-tarte horretan, erdaraz baino ez dakitenen portzentajea 7 puntutik gora jaitsi da.

Adinari dagokionez, euskaldunak nagusi dira adin-talde guztietan. Nabarmenezkoa da, baina, 20 urtetik beherako gazteen artean euskaldunak %90 baino gehiago direla.

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia aztertuz gero, Bergarako euskaldun gehienak (%65,08) euskaldun zaharrak dira. Euskaldun berrien portzentajea oso handia ez bada ere (%10 inguru), hamar urteren buruan, bikoiztu egin da. Euskaldun berrien gorakada hori, batez ere, gazteen artean eman da.

Euskararen egoeraren azterketa egiterakoan, auzoak ere kontuan hartu ditugu. Euskaldunen portzentajea %62tik gorakoa da auzo guztietan, Zubiaurre auzoan izan ezik; bertan, euskaldunak %55 inguru dira. Auzorik euskaldunena Landa-eremua da; bertan, euskaldunak %83,5 dira. Ondoren, auzorik jendetsuenean, Erdialdean hain zuzen, euskaldunen portzentajerik gehien bizi da (%74,7). Hirugarrenik, euskaldunen portzentajerik altuena duena Alde Zaharra da (%67,57).

Auzoen ezaugarriak eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartu beharko dira normalizazio planak garatzean. Udalak prestaturiko ekimenak auzo guztietara heldu behar dira, euskararen hedapenak udal osoan isla izatea nahi badugu.

2.6.2. EUSKARAREN ONDORENGOETARATZEA

Bergaran euskaldunen portzentajerik handienak etxean jaso du euskara. Gainera, ikusi denez, hizkuntza-bilakaeraren tipologia aztertu dugunean, euskaldun berriek gora egin badute ere, batez ere, gazteen artean, hala ere, eta hona hemen kontutan hartzeko datua, txikiagoen artean (5-9 urte arteko adin-tartean), euskaldun berrien hazkundea txikiagoa izan da, euskaldun zaharren mesedetan. Joera hori areagotuko balitz, familia bidezko geroratzea indartzen ari dela adieraziko luke.

Joera horri eutsi beharra dago, horixe baita euskara eskuratzeko era naturala, transmisioa ziurtatzeko biderik eraginkorrena eta erabilera ziurtatzeko modurik ziurrena.

Hori dela eta, familia barruan, etxean, euskararen erabilera areagotzeko ahalegin bereziak egin beharko lirateke. Ikusi denez, familietan etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik gora denean, bergararrek gehienbat euskara erabiltzen dute etxean (%73), edo bestela, euskara gaztelaniarekin batera (%22,2); gutxiengo batek, %5ek, gaztelania bakarrik erabiltzen du.

Dena den, etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik jaisten denean, euskararen erabilera nabarmen jaisten da, eta dentsitatea %50etik beheragokoa denean, osteraz, etxean gaztelania hutsa da nagusi. Joera hori EAEko udal guztietan gertatzen da. Hori dela eta, familiaren geroratzearen inguruko esparruan, ona litzateke familia bidezko jarraipena indartzeari begirako zerbitzuak eskainiko balitu udalak. Horren harira,

haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin elkarlanean aritu beharko luke euskararen presentzia bermatzeko; familia osoarentzako ekintza osagarriak eskolaz kanpoko ekintzekin lotuta eskaini; eta horrekin batera, udal haurtzaindegia, familia erdi-euskaldun eta osatu berrientzako euskalduntze-ikastaroak eta sentsibilizazio kanpainak...

Irakaskuntzari dagokionez, D ereduaren nagusitasuna ikusirik (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxillergoan eta baita Lanbide Heziketan ere), ona litzateke ikastetxeetan euskara-planak sendo bultzatzea, irakaskuntzako ez ezik euskara eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza izateko, eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko.

Lanbide Heziketan, berriz, D eredia nagusi izan arren, A ereduan dabilzan ikasleen kopurua handia da, beste irakasmailetan ez bezala. B eredurik ez dago. Enpresetako bihar-etziko langileen harrobia denez, aztertu beharko litzateke aukera hori zergatik egiten duten: eredu euskaldunen eskaintza murriztua, ezegokia... Ahalegin berezia egin beharko litzateke euskararen erabilera areagotzeko: B eta D ereduen eskaintza zabalduz, ikas-materialak euskaraz sortu edota egokituz eta abar. Jakina, ekimen horiek elkarlanean garatu behar dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin, batik bat.

Euskara ikasi edo hobetu nahi duten helduek Udal Euskaltegia eta AEKren Erdu euskaltegia dute. Bergaran ere EAEko gainontzeko udaletan bezala, euskara ikasten ari direnen kopuruak behera egin du, bereziki 1996-97 ikasturtetik hona. Joera hori aurreikustekoa zen, izan ere, irakaskuntzari esker, eskolatik euskara-gaitasun nahikoarekin ateratzen diren gazteak gero eta gehiago dira.

Bada, euskalduntze-alfabetatze esparruan beste datu esanguratsurik. Bermatrikulazioek erakusten digute ikasleen multzo handi batek euskara-ikasketak ikasturte batetik bestera utzi egiten dituela; ikasleriaren heren batek bakarrik jarraitzen du hurrengo ikasturtean.

Horra hausnarketarako bi gai. Ikasle-kopuruaren gutxitzeak eragin dezakeen egoera eta euskararen ikas-prozesuaren jarraipena.

Euskara ikasten ari direnen artean, bestalde, komenigarria litzateke harreman-sare euskaldunak sustatzea, hots, euskaraz egiteko aukera estrukturalak bultzatzeko egitasmoak indartzea. Horretarako, ikasleei jarduera osagarriak eskaini dakizkieke ohiko eskolez aparte: euskara txokoak, mintza praktika egiteko guneak...

2.6.3. EUSKARAREN ERABILERA

Euskaldunen portzentajeari begiratuta, euskaldunen presentzia nabarmena denez, EBPnk adierazten duenez, arreta berezia jarri beharko zaio euskararen erabilerari Bergara bezalako herrietan. Hori horrela, euskaldunek "pizgarri nahikoak" aurkitu behar dituzte euskara gizarte-eremu guztietan erabili dezaten. Horretarako, euskararen presentzia areagotu beharra dago eskolan, gizarteko zerbitzuetan, enpresetan, merkataritzan eta aisialdiko nahiz kultur jardueretan.

Bergaran euskara erabiltzeko esparruak bermatzeari begira lan egin daiteke, eta ona litzateke udalaren gidaritzapean, Euskara Batzordearen bitartez, aisia, kirola, katekesia nahiz kulturgintza esparruetan euskararen presentzia bermatzea. Ekintza horiek dibertsifikatu beharko lirateke, adin tarte ezberdinetako euskaldunengana iristeko. Era berean, auzoen arteko egoera soziolinguistikoaren arabera ekintza berezituak egin daitezke.

Aisialdia eta kirola direla eta, horretan diharduten taldeen eta elkarten jarduerak koordinatzeko modua egin dezake udalak. Euskarazko ekintzen aldirokotasuna bermatzeaz gain, esparru horietan adin-tarte eta interes ezberdinei erantzuteko ahalegina egin dezake, eta udalaren menpeko aisialdi, kultur nahiz kirol guneetan euskarazko saioak eskaini. Esparru horietan denetan haur eta gazteentzako eskaintzari erreparatu beharko litzaioke, bereziki. Besteak beste, haientzako dauden euskarazko produktuen eta zerbitzuen gaineko informazioa helarazi daiteke, eta horretarako, egun eskueran dauden jokoan, liburuen, komikien, bideoen edota teknologia berrietan oinarritutako produktuen katalogoa osa daiteke. Horrela, euskarazko produktuen eta zerbitzuen kontsumoa areagotuko litzateke.

Goraipatzekoa da Debarroko *Kirola Euskaraz* programa. *Kirola Euskaraz*, Deba Goieneko udaletako euskara eta kirol zerbitzuek 1993an sortutako programa bat da eta hiru arlo nagusi jorratu izan ditu: sentsibilizazio, entrenatzaile eta monitoreak euskaraz trebatzeko ikastaroen antolakuntza eta euskarazko kirol materialen sorkuntza. Lan horretan Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaz izatea komenigarritzat jotzen dugu.

Aztertu beharko litzateke kirol arloan emandako urrats horiek gainontzeko esparruetan ere, batez ere, aisia eta kulturgintzan, ematea posiblea denentz.

Teknologia berrietan bada proiektu interesgarriak Deba Goienera eskualdean: e-debagoienak. Egitasmo honen bitartez, telekomunikazio azpiegiturak ezarriko dira eskualdeko herri guztietan. Aplikazio telematikoak garatuko dira hainbat alorretan, hala nola, osasunean, administrazioan, irakaskuntzan, informazioan... Goraipatzekoa da proiektu honetan hartu den hizkuntza-irizpidea; izan ere, proiektuko zerbitzuak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eskainiko dira, Debagoieneko errealitate soziolinguistikoari erantzunez.

Egitasmo hori garrantzitsua bada ere, teknologia berrietan besterik ere egin zitekeen. Esate baterako, web-orrietan euskararen erabilera areagotzeko, udalerriko elkarteak eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza eskaini dezake udalak.

Bestalde, administrazioaren barruko jardunari begira, udala honezkero AEBE (Administrazioa Euskara Bultzatu Erabiliz) Planaren bigarren aldia garatzen ari da. 2000-2003 aldiko planean adierazten den moduan, Bergarako udalak "orain arte arlo batzuetan lortutako emaitzak sendotu eta finkatu" beharko ditu, besteak beste, udal barruko hizkuntza-erabileran edota hizkuntza-paisaian. Horretaz gain, beste hainbat arlo ere lantzeko proposamena egin du udalak, hala nola, enpresekiko harremanak, erakunde publiko batzuekiko harremanak, informatika arloa, azpikontratazioetarako hizkuntza-irizpideak eta abar.

Derrigortasun-data duten langileen artean, %61,3k egiaztatu du hizkuntza-eskakizuna eta beste %5 batek dagokiona baino bat gutxiago. Hortaz, planean aipatzen den bezala, langileen hizkuntza-gaitasuna hobetzen jarraitu beharra dago, eta udal jardunean ari direnen eginkizunak euskaraz egoki eta behar besteko erraztasunez

gauzatzeko gaitasuna lortze aldera lan egin beharko da; bereziki, izendatutako atal elebidunetan lan hizkuntza euskara izan dadin urratsak eman behar dira.

Alor pribatuan, gaur egun erabilera-plana martxan duen enpresarik ez dago Bergaran. Enpresa gehiago euskara-planak lantzen has daitezzen, udalak sentsibilizazio eta informazio kanpaina egin dezake, batetik, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutaraz ditzake. Azkenik, bi erakunde horiekin elkarlanean, laguntza teknikoa zein ekonomikoa eman diezaieke enpresei.

Horrekin batera, merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak areagotu eta modu orokorrean zabal ditzake udalak, modu sistematikoan lan eginez, sektorearen ordezkari diren elkarteekin harremanetan.

2.6.4. EUSKARAREN ELIKADURA

Komunikabideei dagokienez, Bergaran Berrigara herri-aldizkaria argitaratzen da, gaur egun, Goienkaria aldizkariaren atal bihurtu dena. Goienkaria Debagoieneko euskararen aldeko taldeen eta Goiena komunikazio-kooperatibaren ekimenez kaleratzen da. Benetan goraipatzeko dira eskualde mailan egiten ari diren horrelako ekimenak, eskualde mailako egitasmoek giza eta diru-baliabideei etekin handiagoa ateratzea baitakartzate.

Udalaren esku dago euskarazko komunikabideak laguntzea eta bultzatzea, eta horretarako ona litzateke laguntzak ematerakoan irizpide objektiboak finkatzea: autofinantzaketa, proiektuaren bideragarritasuna, maiztasuna eta hartzailearen tipologia, besteak beste. Alor honetan, beharrezkoa izango litzateke finantziario irizpideak adostea Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin.

Komunikabideen bidez, gainera, tokiko ahozko euskararen ezaugarriak heda daitezke; horretarako, TXAPA Irratia, hedabiderik egokiena litzateke. Bertako saioetan entzuleek hizkuntza biziaren erreferente aurki dezakete. Irratiaren bidez tokian tokiko euskalkiaren erabilera bultzatu daiteke.

Txapa Irratia Arrosa irrati-ekoizpen zentroko partaide den moduan, helburu berdintsuekin, eskualde mailako elkarkidetza ere susta zitekeen inguruko irratiekin.

Bestalde, komeni da komunikabideetan, haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza berezitua sustatzea.

Herri edo eskualdeko mailako komunikabideetan teknologia berrien egokitzapena beharrezkoa da, eta ildo horretatik, Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak Euskal Herrian berritzailea den proiektua abiatu du. Horrelako ekimenak aintzat hartu behar dira, eta ahal den neurrian, lagundu eta sustatu arlo honetan euskararen erabilera bultzatzeko eredugarria izan baitaiteke.

Kirolean eta Komunikabideetan landu den eskualde mailako ikuspegia Kulturgintzaren arloan ere lantzea komenigarria litzateke: kultur zirkuituak antola daitezke euskarazko kultur ekoizpenak herritarregana iritsi daitezzen aldiro-aldiro.

Bestalde, partzialki euskaldun berriak hartu behar dira kontuan. Gaur egun, euskaldun zaharren, erdaldun zaharren eta euskaldun berrien ondoren, beraiek osatzen baitute

multzorik handiena (%8). Euskaraz ondo hitz egiten ez dakiten arren, ondo ulertzen dute euskara eta, hori dela eta, euskarazko ekimenetara erakartzeko ahalegina egin daiteke.

Ona litzateke, azkenik, corpus plangintza alorrean, toponimoak eta seinalizazioa normalizatzea eta zabaltzea; horretarako, hizkuntza ondarea gordetzeko eta zabaltzeko ekintzetarako laguntzak eman ditzake udalak. Halaber, ahozko euskal produkzioaren lekukotasuna gordetzearren, laguntzak eskaini ditzake udalak bilketa eta ikerketa lanak egiteko, beti ere, Euskaltzaindiaren arauak eta metodologia errespetatuz.